

2015

16.  
zenbakia

# BERROBI BERRI

BERROBIKO URTEKARIA



Berrobi  
dantzara, plazara, dantzara...



©



- Eguneko menuak
- Menu bereziak
- Familia eta koadrilentzako bazkari eta afariak

©



**MAYENSA**

MANDRILAK ESPIRALEAN

© 943 683 051 / 943 683 231 · Faxe: 943 683 345

20493 Berrobi

mayensa@mayensa.com

[www.mayensa.com](http://www.mayensa.com)

# non zer

- 4 Jaiotzak eta heriotzak
- 6 Eztigileak Berrobin
- 9 "Baserri bizia, amets izatetik errealitatera"
- 11 Gaztealtzategi, Lapatzatarren oinetxea. Palazio Etxea
- 15 Udala mintzo
- 16 Kristalezko baratza
- 18 Antzerki eskola
- 21 Berrobitar, jalgi hadi dantzara!
- 26 Argazki zaharrak
- 28 Aritz Aierbe
- 30 Iturburuko iturri zaharra
- 32 Kirol txokoa
- 37 Urtetik urtera

## BERROBIBERRI

### Lantaldea:

Erlantz Allur, Niko Artola, Iñigo Aurkia, Rosa Aurkia, Agurtzane Belaunzaran, Elena Berakoetxea, Maddi Dorronsoro, Iker Elustondo, Izarne Garmendiari, Aloña Izagirre, Bittor Madina, Begoña Olamusu, Ramon Olasagasti, Igone Saldias.

### Esker bereziak:

Urteotan guztiotan herriaren memoria historikoa osatzen lagundu diguzuen guztioi, eta publizitatea jarri duzuen guztioi.

Lege gordailua: SS-27 / 2000

Berrobin, 2015. urteko abendua



Hamasei urte BerrobiBerri plazaratu zela. Plazara jalgi zela. Eta hamaseigarren honetan, inoiz baino plazakoago agertuko zaigu. Dantzara jalgiko da Berrobi, airos. Herri dantzaria ere izan baita gurea. Erreportaia mamitsuan, dantzak Berrobin izan duen bilakaera jorratu dugu, argazki ugariz atonduta.

Baina bada besterik, irakurle. Gaztealtzategi, Lapatzatarren oinetxeari buruzko ikerlan interesgarria ere aurkituko duzu. Ikerlana, bai: artxiboetan arakatzen, iraganeko iturrietatik edaten, bati eta besteari galdetzen aritu baikara ahaleginean. Iraganeko iturriez ari garela, iraganean geratu zaigu Iturburuko iturria ere, baina ale honetan haren lekukotza jaso geratu da gutxiarik. Berrobitarren lanbide eta zaletasun ugarien adibide, gure eztigileei buruzko erreportaia ere egin dugu. Eta munduan barna batera eta bestera bidaiatzatzen dabilen Aritz Aierbekin ere hitz egin dugu.

Urteak eman du besterik, eta, nola ez, horiek ere jaso ditugu: Barazki Bizidunak baratzean uztailleko kazkabar-jasak eragindako txikizioa eta ondorengo auzolana, gure kirolariek bildutako uzta oparoa, korrikaren testigantza, kulturaldia eta literatura lehiaketako ale bikainak...

**Amets** (2014/12/11)

Gurasoak:  
**Jon Altuna Mendizabal**  
**Oihana Torregrosa Arteaga**



**Ioritz** (2015/01/05)

Gurasoak:  
**Javi Ascaray Sucunza**  
**Lorena Ortiz Masa**



**Ahmed** (2015/01/19)

Gurasoak:  
**Mostafa Houari**  
**Fatima Zahra Yousfi**



**Xuban** (2015/03/03)

Gurasoak:  
**Axier Aranguren Errazkin**  
**Garbiñe Mendiola Arrizurieta**




**Izaro** (2015/04/21)

Gurasoak:  
**Gorka Labayen Aldanondo**  
**Maialen Larrañaga Agirrezabala**



**Manex** (2015/06/13)

Gurasoak:  
**Joseba Odriozabala**  
**Leire Rios**



**Aretx** (2015/06/25)

Gurasoak:  
**Daniel Artola Noble**  
**Ana Betelu Etxarri**



**Ruben** (2015/07/14)

Gurasoak:  
**Mikel Zinkunegi Quintares**  
**Janire Paredes Reguillaga**



**Brigida  
Insausti**

1928/04/22  
2015/05/29



**Imanol  
Izaguirre  
Alberdi**

1936/02/20  
2015/02/07



**Javier  
Urquizar**

1937/09/19  
2015/01/14



**Lontxo  
Irazusta**

1922/05/30  
2015/04/27



**Lorenzo  
Dorrnsoro**

1919/10/28  
2015/04/18



**Miren  
Urkola**

1965/04/14  
2015/10/28





## Eztigile Berrobin

**“Erlarik gabe gizakiak lau urte iraungo lituzke”.** Esaldi hau Albert Einsteinen ahotan jarri izan da eta mezua oso muturrekoa dirudien arren egia da erleek gure ekosisteman duten eragina ezinbestekoa dela naturaren orekarako.

Eztigileak dira bereziki gure garai hontan erleak zaintzeaz arduratzen direnak eta Berrobin baditugu bi, Iñigo Erauskin eta Asier Armendariz, biek ala biek urteak daramatzate arte hau lantzen eta erleen zainketaren bidez jaki gozo hau biltzen.

### Nolatan eta noiz hasi zineten eztingintzan?

**Iñigo:** Gaztea nintzela nire aitak erleak zituen berak egin-dako bi kaxetan bere osabaren baserrian Berastegin (Iparre baserria) eta niri betidanik gustatu izan zait mundu hau. Orain dela bost urte Fraisoron kurtsoa egitea erabaki nuen, bi erlauntza erosi eta horietatik pixkanaka nukleoak ateraz erle kaxa kopurua handitzen joan naiz.

**Asier:** Nire lehen erreferentzia Errotako aitona Joxe izan zen, berak ganbaran izaten zuen erlauntza eta nik beti ezagutu nituen erleak Errotan. Bitxia da garai hartan aitona traje berezirik gabe lantzen zuela eztingintza, erleak aitona ez zioten ezer egiten, ezezagunen bat hurbildu ezkerordea erabat hozkatzen zuten, nolabait erleak aitona ezagutzen zuten. Nire iritziz garai batean denbora

gehiago izaten zen eta hobeto lantzen zen erlegintza, gaur egun presaka gabiltza gauz guztietan eta hori erleek antzeman egiten dute. Erlegintzan lasai ibili behar da, presarik gabe.

Beranduago, orain dela hamasei urte Ina Uranga eta Antton Tejerarekin hasi nintzen eztigintzan barneratzen, gero Fraisoron kurtso batzuk egin eta gero urtez urte pixkanaka esperientziaren bidez joan naiz ikasten. Haseran nire jabetza batean jarri nituen erleak baina ospela zen eta eguteraan zegoen terreno batetara mugitu nituen beranduago.

#### Zenbat erleren jabe zarete gaur egun eta zein produktu ekoizten dituzue?

**Iñigo:** Gaur egun 20 kaxa dauzkat (15 Berrobin eta 5 Berastegin) eta ezti mota ezberdinez gain, polena, propoleoa eta argizaria ekoizten ditut. Aurten gainera jelate erreala ekoizteko kurtso bat egin dut.

**Asier:** Nik 6 erle kaxa dauzkat (3 Berrobin eta 3 Berastegin) eta ezti bakarrik ekoizten dut.

#### Hainbeste kaxetatik ezti asko aterako da noski, zein da zuen ekoizpen maila? Ezti saltzen al duzue?

**Iñigo:** Ekoizpena urtearen arabera da, eguraldiak agintzen du. Gipuzkoa mailan kaxa bakoitzean 10kg lortzea ekoizpen ona da. Gainera loraldia- ren arabera ezti ezberdinak lortu daitezke, Berrobi mailan lau ezti mota sortzen dira: Akazia, Gaztaina, Txilarra eta Milalorea (azken hau aurreko guztien batura) eta urte sasoi bakoitzean egiten duen eguraldiaren arabera dira loraldiak eta ondorioz ezti ekoizpenak.

Salmentari buruz berriz, nire produktuak saldu egiten ditut. Gaur egun "Gorostitxo" ezti elkartearen parte naiz eta honela osasun erregistro bat daukat produktuen salmentarako.

**Asier:** Nik urtean behin jasotzen dut ezti, Milalora ezti ekoizten dudalarik. Aurtengo ezti akazi askorekin atera zait, aurreko urtekoa berriz gaztain askorekin baina edonola ere Milalora ezti esan bezela.

Salmentari buruz orain arte ekoiztu dudana guztia kontsumo propioarako izan da (etxean eta inguruko artean kontsumitu izan dugu) baina urten 70kg ezti ekoizteraino iritsi naiz eta ezti saldu dudana lehenengo urtea izan da. Halere nire ekoizpena kontsumo propioa dago bideratuta.



#### Zenbait azoka, ekintza eta txapelketetan ere parte hartu duzuela jakin dut, baita sariren bat lortu ere...

**Iñigo:** Bai, ni orain dela hiru urte hasi nintzen Berrobiko kulturaldiko azokan postua jartzen eta geroztik inguruko zenbait herritako azoketan parte hartu dut (Billabona, Alegi, Ikaztegieta,...). Txapelketei buruz berriz Tolosaldeko ezti lehiaketan 2. Saria lortu nuen 2014ean eta 1. saria 2015ean. Gainera 2014ean Usurbilen ospatutako Euskal Herriko ezti lehiaketan 2. Saria lortu nuen.

**Asier:** Ni aurten estreinatua naiz txapelketetan eta Tolosaldeko ezti lehiaketan 6. Postua lortu dut. Lehenengo aldia zen eta ez nekien txapelketaren nondik norakorik baina gustora geratu nintzen lortutakoarekin. Azoketan eta ez naiz ibili, baina zenbait eskoletan (tartean Berrobikoa) egon naiz eztigintza eta erleak gure txikienei erakusten.



### Guztion ahotan dagoen gai bati helduz, horrenbestekoa al da liztor asiaticoaren mehatxua?

**Iñigo:** Aurten konkretuki sekulako izurritea dago. Egia esan gaur egun ez dago beraien aurka ezer egiterik, feromona baten desarroiola martxan dago baina ez dira proiektuan behar adineko errekurtsio ekonomikoak jartzen.

Liztorren zabalkuntza izugarria da, urtetik urtera hamar-koiztu egiten da beraien zenbakia gure lurretan eta honen eragina guztiok pairatzen badugu ere bereziki ekoizle txikiok eragiten digu gehien.

**Asier:** Egia esan kontu bitxia da liztorren hedapenarena... Gaur egun beraien zabalkuntza Espainiko kantabriko aldetik hasi eta Frantziatik barrena Europa alderakoa da, ez dira Espaini hegoalderantz zabaltzen. Hemen eroso bizi dira ez bait dute aurkari naturalik. Asia aldean txori mota baten jaki dira eta bertako erleek liztorren aurkako teknika bitxi bat landu dute, erleek liztorra inguratzen dute pilota bat sortuz eta bere gorputzeko temperatura igo arazten dute, erleena ere igotzen da baina lizto-



rrak gradu erdi bat gutxiago jasan dezakete eta hontaz baliatzen dira liztorrarekin amaitzeko. Hemengo erleek ez dute teknika hau ezagutzen eta ez dago beraien aurkako txori edo harrapakirik...

### Nola ikusten duzue eztigintzaren etorkizuna eta zuena eztigintzan?

**Iñigo:** Nire burua eztigintzan ikusten dut etorkizunean baina baldintzak gero eta zailagoak dira. Orain dela 30 urte erlauntzetatik urtean behin ezta jaso, itxi eta ez zitzaion kasu gehiagorik egin behar, gaur egin berriz ez dago iada erlauntz naturalik, dauden guztiak erlezainak zaindutakoak dira, barroa (80.hamarkadan Euroa ekialdetik etorritako akaro bat), liztorrak... asko dira eragozpenak.

**Asier:** Nik guzti hau hobby bezela ikusten dut baina egia da gero eta zailagoa dagoela dena eta honen erakusle ez-tigile askok beren ekimena bertan behera utzi dutela da. Halere mundu hau gustoko duenak aurrera egin beharko luke bere afizioarekin, erleak eta ekipoa erosi eta aurrera.

ZARREN  
ELKARTEA



CLVB DE  
JVBILADOS

**SOLASTOKI**

Eleitz-Gain etxea · 20493 Berrobi

# “Baserri bizia, amets izatetik errealitatera”

Urte bete bat igaro da gutxi gorabehera, Mainer eta Ramontxo “Urangane” baserrira bizitzera etorri zirenetik. Betidanik zuten bizitza-proiektu berri bat hasteko gogoia, ilusioz betetako ideia bat zen beraientzat hiritik baserrirako al-daketa egitea, hainbat hiritarrei gertatzen zaien moduan. Hau guztia egi bihurtzeko denbora behar izan duten arren, beraien bizitza idealari heltzea lortu dute eta horren inguruan jardun dugu solasean.

Donostian bizi ziren aldaketa erabaki hau hartu zutenean. Nahiz eta hirian bizitzeak erosotasun handiak dakartzan, bere alde negatiboak ere badituela iritzi du Mainerrek. Turismo kopuru handiak, zaratak, lo egiteko arazoak eta beste hainbat faktorek bultzatuta, naturarekin kontaktu zuzena lortu nahi zuten beraien bizileku gisa. Hori dela eta, baserri bat bilatzen hasi eta Berrobiko “Urangane” baserriarekin topo egin zuten.

“Baserri batean bizitzea amets bat bezala da niretzat, nire arbasoak ere baserri mundukoak dira eta horrek hiritik herrirako itzulera bultzatzen duela uste dut”. Hiri eta landa eremu-tako baloreen inguruan hausnartu dugu eta bi bizitza estiloetatik ondorio sakon batzuk ateratzen ditu: “Hirian ez dakizu zer jaten duzun, ze elikagai den garaikoa eta non-goia, arnasten duzun aireak ez du zerikusirik, naturarekin lotura galtzen da eta kontsumitzeko gaitasuna bihurtzen da balore nagusia. Orain aldiz, jaiki eta mendia da ikusten du-dan lehenengo gauza eta horrek ez du preziorik”.

Oreka beharra azpimarratzen du berak. Oso garai lehiako-rreretan gaude gaur egun eta teknologiak eskaini dizkigun onurak hartu behar direla ikusten du, betiere, errespon-sabilitatez jokatzuz, gizakiak behar lituzkeen baloreak galdu gabe. “Atzera bueltatu behar genuke iparra ez galtzeko”.

2014. urteko irailean jarri ziren baserrian bizitzen. Oso ego-era txarrean zegoen eta lan pila egin behar izan dute kon-ponketetan. Orain arte egin dutena baserria bizigarri egite-ko behar zituen obrak izan dira, baina jarraitu beharreko prozesua da, zer eginga asko geratzen bai da oraindik.

“Uranganeren” historia ere berreskuratzen nahian dabilta. Mainerri asko interesatzen omen zaio historia eta bere bizi-



leku berriak dituen jatorriak oso interesgarri egiten zaizkio. Aurkitu dituen datuen bidez, baserria oso zarra dela jakin du. Lehenengo transmisio erregistroa 1864. urtekoa dela jakin du baina datu horrez gain, zaila da gaur egun orduko informazio gehigarria topatzea. Lehenago bertan jaiotako bizitza jendearekin ere bildu nahian dabil eta pixkanaka eraikuntza horren atzean dagoen jakituria jaso.

Igaro den denbora honetan, ondorio bezala, egindako apustuak alde positibo askoz gehiago dituela uste dute negatiboak baino. Lan izugarri izan omen dute baina, goza-mena ere sekulakoa omen da. Auzokoekin sortzen den harreman erlazioak oso gustuko dituzte, eskulana eta jakituria elkarbanatzeak dakartzan alde positiboak azpimarratzen ditu. Naturarekin liluratuta dagoela dio, “Oso eskertuta na-go amalurrarekin, harrigarria da adibidez baratzean, hain gutxi eginda zenbat ematen duen ikustea. Baserrian ohar-tzen zara zein txikiak garen. Hirian kontrakoa gertatzen da; pisuan babestua zaude, jendez beteta baina, tamaina erreala txikitasun hori dela ikusten dut. Txundituta geratzen naiz ere basoko animalia askeak ikusten ditutenean, baina, tristura handia sorrazten dit batez ere garai honetan, horrenbeste tiro hots entzutean”.

Herriko jaiak ere bizitzeko aukera izan du eta asko gustatu zitzaizkiola dio, ordurarte ohituta zegoena aldatzen bai zen. Hirian, adin bakoitza bere adinekoekin ibiltzen dela dio eta ez dela belaunaldien arteko nahasketa hori ematen. Herri txikietan festak guztien artean disfrutatzen dira aldiz, ez kuadrilatxoka bakarrik eta hori oso aberasgarria dela uste du. Zelako poza ematen duen gaur egun hutsik geratu den baserri bat biziberritze bidean dagoela entzutea. Orokorrean hain hiritar bihurtzen ari garen garai honetan, zein polita horrelako izenburu bat irakurtzea.

# Iturriza janaridenda

Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea, 24



☎ 671 071 512 / 678 320 385


[www.teileri.es](http://www.teileri.es)



## SORONEA

baserria eta denda ekologikoa

Letxuga kalea, 8 · Tolosa · & 943 016 86



## IBARBURU

merkatutxoa

Euskalherria, 51 · Ibarra



Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea  
Casa Iriarte, 10  
Berrobi



Ibai-Ondo etxea, 2 / esk. · 20493 Berrobi

☎ 943 683 112 / 619 405 260 · Faxe: 943 683 112

# Gaztealtzategi, Lapatzatarren oinetxea. Palazzo Etxea

**XVI. mendearen erdialdean jadanik, Berrobin, Gaztealtzategi izeneko etxe bat eta abizen bereko persona baten arrastoak aurkitu ditugu. Lapatza berriz, garai haietako Tolosako familia boteretsu baten abizena zen. Izen bereko etxea zuten orain Korreo kalea dagoen horretan. Izen abizen hauek XVII. mendearen hasieran elkartu ziren, Juan (Joan, Joanes) Lapatza Gaztealtzategirengan.**

Beste batean bezala, R. Saizarbitoria plagiatur hasiko gara: "Momentu orok du lehenago bat eta, gauzak hasieratik kontatze-ko ahalegina alferrikakoa denez, zilegi da historiari edozein pasartetik ekitea."

Guk, 1552an ekin diogu gureari. Urte horretan, Tolosako Artxiboko protokoloetan aurkitu dugu, Berrobiko Joanes Gaztealtzategi izeneko bat. 42 urrezko dukat jaso zituen zentsuan (mailegua) Elduaingo M. Berroetarengandik. Horretarako bere etxea, Gaztealtzategi, hipotekatu zuen. XVII. mendearen hasieraino izen hori dokumentu askotan agertzen da, beti ere maileguei eta zentsoei lotuta, baino ez dirudi beti persona bera denik.

1590ean, Berrobiko Juanes Gaztealtzategi, izen bereko etxekoa eta Maria Lapatza senar-emazteek bere ezkonhitzarmena sinatzen dute. Bere semea izango da Juan Gaztealtzategi Lapatza (1595-1638). Hasiera batean, abizenak ordena horretan jartzen baditu ere, gerora, Lapatza Gaztealtzategi bezala ezagutuko da.

Abizenak direla eta, esan beharra dago, garai haietako jendeak sarritan eta nahiko erraz aldatzen zituela, batzutan ordena, bestetan aurretik edo atzetik bere jaiotetxearen edo oinetxearen izena jartzen zuten, grafia ezberdina erabili, etab.

Juanen ama, Maria Lapatza, Tolosako jauntxo aberats baten arreba zen, Francisco Lapatza Estangarena. Hau, 1612an hil zen, oinordekorik utzi gabe eta hainbat auziren ostean, Juan egin zen bere osabaren herentziaren ja-



be. Gaztealtzategi etxea berriz aitarengandik jaso zuen. Juan Lapatza, Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Santiago Zaldun-ordenako kide izan zen. Bere garaitik aurrera, Berrobiko Gaztealtzategi, Lapatzatarren oinetxea (leinu edo familia baten sortetxea) bezala agertzen da dokumentuetan. Bere semeak, Nikolas Lapatza Elexalde (bartzutan Gaztealtzategi ere erabiltzen du) jaso zuen bere oinordetza.

Nikolas tolosaldeko maiorazko sare baten jabea izan zen eta bere aita bezala, Santiago Zaldun-ordenako kide, Tolosako Alkate eta Gipuzkoako Diputatu Nagusia. Luisa Zarautz Ganboarekin (Ganboatarren leinukoa) ezkondu zen. Hil zenean, 1683an, bere testamentuan aipatzen dira Gaztealtzategiko jabegoa osatzen zuten etxe eta lursailak: Etxe nagusia, dolaretxea, upelategia eta lursail ugari, besteak beste, Etxaburua, Egiluze, Usarreta, Elutse, Kiris-kin, etab.

Nikolasen seme zaharrena, Manuel Franzisko izan zen Gaztealtzategiko hurrengo nagusia. Seme-alabarik gabe hil zen eta herentzia, bere emaztea, M. Ignazia Agirre

Okendo eta bere arreba Phelipa Lapatza Zarautzentzat izan zen. Hauek, 1747an, Nikolasen biloba bati, Jose Franzisko Lapatza Sarriari eta honen bigarren emaztea izango zenari, Franziska Xabiera Leizaur, eman zieten oinorde-tza dohaintzan, Gaztealtzategi barne.

Jose Franziskok, bere familiako beste hainbatek bezala, kargu publiko ugari izan zuen. Segurako alkate izan omen zen eta baita Tolosaren ordezkari Madrilén. 1749 eta 1759 artean berriz, Tolosako barrutiko Ahaldu Nagusi izendatu zuten. Eginkizun hau zela eta, Espainiako monarkiak, Frantziako erresumarekin aliaturik mundo mailan eta batez ere, Erresuma Batuen aurka martxan jarritako estrategietan parte hartu zuen. Kantauri itsasalde osoan ontzigitzako lana areagotzeko planak lantzen jardun zen eta Gipuzkoako egurraren gain ezarri beharreko kontrol lanetan ere aritu zen; izan ere, Madriletik galarazi egin zuten gerrarako ontzi berriak eraikitzeko erabil zitekeen egurra, beste zeregin batzuetarako erabilteza (etxeak eraikitzeko, adibidez). Horretarako Diputazioaren onespena behar zen.

Familia kontuetara itzuliz, esan behar da, Jose Franziskok dohaintza oparoa jaso zuela: Gaztealtzategiko oinetxeaz gain, maiorazko sare ederra bereganatu zuen: Zerain, Lapatza, Lixalde, Garin, Otadui, Jausoro, etab.

1757an, Espainiako Erregearen baimena jaso zuen, Zeraingo Maiorazkoaren zati bat saltzeko. Lortutako diruarekin, familiarean oinetxearen gain zituen zorrak kitatu eta berau, Gaztealtzategi, Zeraingo maiorazkoari erants-teko baldintzapean. Urte horretan bertan gauzatu zuen Erregearen agindua eta handik gutxira, Gaztealtzategi eraberritu zuen, orain ezagutzen dugun barroko estiloko jauregia edo palazioa eginez.

Jose Franzisko Berrobin hil zen 1770ean, eta hurrengo bost urteetan, liskar eta auzi ugari izan zen Gaztealtzategiren jabegoa zela eta, bere bigarren emaztea, Xabiera Lizauren (adin txikiko 4 alaba zituzten senarra hiltzerakoan) eta Maria Josepha Lapatza, lehenengo emaztearekin izandako alaba bakarraren artean.

Maria Josephen senarrak, Manuel Fernando Barrenetxea Castañosek, emaztearentzat eskatu zuen Gaztealtzategiko jabegoa, Zeraingo maiorazkoaren zati bat zelako. Xabiera Leizaurrek berriz zioen, senar zenak eta berak, dohaintzan jasotako jabego libre bat zela eta ez zegoela inongo maiorazkoari lotuta. Auzi horren inguruko

paperetan azaltzen da Gaztealtzategi eraberrituari buruzko datu ugari.

Jauregia egiten aritutako hainbat langileen testigantza jasotzen da dokumentu horietan. 1774an, Juan Angel Goikoetxea, Migel Munita, argina, eta Bentura Zabala, arotza, berrobotarrak hirurak, diote obrak 15 urte lehenago hasi zirela eta bi urte iraun zutela. Elduako Pedro Etxabek gehitzen du, Gaztealtzategiren ondoan zeuden dolaretxea eta zalditegian beste etxe bat ere egin zutela maizterrentzat.

Auzi horretako beste dokumentu batean berriz, jabegoa osatzen zuten eraikin eta lursaileen neurketa eta balorazioa ikus daiteke. Etxe nagusia, dolaretxea eta egutera eta ospeleko lursailak denera, 198 mila 428 erreale eta 6 maravediko balioa zuten eta urte gutxi batzuk lehenago, urtean 70 dukat eta 45 sagar kargako errenta ematen zuen.

Auzia 1775ean bukatu zen, Valladolideko Errege Entzutegi eta Kantzelaritza (Real Audiencia y Chancilleria de Valladolid). Sententziak dio eraikuntza berria Zeraingo maiorazkoari erantsi eta gero egin zela eta horregatik jabegoaren bost seirenak Maria Josefa Lapatzari eman zizkion eta seiren bat Franziska Xabiera Leizaurrei. Horrela, Gaztealtzategiko jauregi berriaren hurrengo jabeak, Maria Josepha Lapatza eta bere senarra, M.F. Barrenetxea Castaños izan ziren. Ordutik aurrera, eraikin berria Casa Palacio bezala agertzen hasten da dokumentuetan.

Maria Josepha Lapatzaren semea, Jose Manuel Barrenetxea Lapatza, Vargaseko Markesa, izan zen hurrengo nagusia. Honek 1809an bere maiorazko guztien mapak eta deskribapenak eginarazi zituen. Hona hemen Gaztealtzategiko.





Deskribapenak dionez, etxe printzipalak, 3 areako azalera okupatzen zuen, ate aurea harrizko paretaz inguratuta zuen eta hauek harrizko eserleku dotoreak zituzten. Etxe honen ondoan beste etxe multzo txikiago bat ere aipatzen du. Baratz-lorategia ere lau aldeetatik harresiaz inguratuta zegoen. Honek, ekialdetik Gaztealtzategi izeneko bigarren etxearekin muga egiten zuen ("El citado jardín confina por el Oriente con la heredad de la segunda casa de Gaztealtzategi").

Gero, lursailak izendatzen ditu: Etxaburua, Elutse, Usarreta, Azpilaga aldea, Egiluze, Antzilarte, Loiola aldea, Legarda, Miatzeta, Kiriskin, etab. Bakoitzaren neurriak posturatan eta balorea, sagasti eta gaztainadietako zuhaitz kopurua, etab.

JM Barrenetxea Lapatza, Segurako M<sup>a</sup> Luisa Zurbanorekin ezkondu zen eta ez zuten seme-alabarik izan. Hilda-koan, bere emaztearentzat izan zen herentzia guztia eta gero honen senitartekoentzat. Honela, Berrobiko Palazio Etxea, Bilbon bizi zen bere iloba, Juana Zurbano Monzonen eskuetara pasa zen(1856).

Juana 1906an zendu zen eta bere seme alaben artean banatu zen bere herentzia. Orduetik 1943arte gutxi gora behera, familia arteko salmenta eta dohaintza bitartez, Carmen eta Pilar Mieg Berastegik (Jose M<sup>a</sup> Mieg Zurbanoren alabak eta Juanaren bilobak) bereganatu zuten Berrobiko Palazioa. Gero, jabegoa bi lotetan banandu zuten. Zatiketa egiterakoan, berriro aitatzen da, Palazio Etxeak, ekialdetik Galtsastegi baserriarekin egiten duela muga. Handik gutxira, 1945ean, aipaturiko bi loteak, etxearen bi bizitzetan bizi ziren maizterrei, Jose Inazio Lizarralde eta Manuel Garmendiari saldu zizkieten.

Lan hau egiteko ondorengo artxiboak kontsultatu ditugu: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tolosako Gipuzkoako Artxibo Orokorrean honako dokumentu hauek: AGG-GAO COECI4023; AGG-GAO COCRI431,13; AGG-GAO PT120; AGG.GAO PT73; AGG-GAO PT33 Badator Euskadiko Artxibo Sisteman, Zabala eta Zurbano Familien artxiboak. Auñamendi Entziklopedia. Tolosako Jabetza Erregistroa.



## MAIORAZKOA

**"Toroko Legeak" (1505) izenez ezagutzen den ordenamenduaren eskutik hedatutako instituzio juridiko bat zen. Familia baten ondarearen osotasuna zatikatu gabe mantentzea zuen helburu. Zati bat banaka saltzeko, erregearen baimena behar omen zen. Gizartean, bi funtzio betetzen zituen: batetik, errentagarria zen produkzio unitate baten iraunkortasuna bermatzen zuen eta bestetik, gizartean, familia batek zuen postua iraunarazteko baliabide bat zen. Euskal Herrian, familia ondasunak, oinetxea bereziki, seme-alaba bakar bati uzteko joera lehendik ere, oso zabaldua omen zegoen. Zuzenbide instituzio hau 1820 an ezabatu zen baino luzaroago iraun zuen trikimailu legal bati esker: bizien arteko dohaintzak.**

# Ekintza

## Guraso Elkarte



Eguneko menuak ·  
Menu bereziak ·  
Asteburuko menuak ·  
Karta ·

☎ 943 683 078  
Berrobi

# Xanti harategia

## Xabier Errazkin

Bertako okela eta artisau  
eran egindako txerrikiak

Usategi Berri etxea · ☎ 943 683 311 · Berrobi



adidas  
STORE  
NIKE  
Reebok

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11 · ☎ 943 674 074 · Arostegieta, s/n · ☎ 943 676 093  
Tolosa



## BERROBIKO ERRE-BERRI

### Okindegia - Kafetegia

Maribi Agirretxe

☎ 943 683 077 - 669 631 631

Jose M<sup>a</sup> Goikoetxea, 31 bajo - Berrobi



Berrobiko eskola

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik

## LESMES BELAUNZARAN

### TXERRI ABELTZANTZA



Usarre baserria

☎ 943 683 193

BERROBI



kutxa kutxabank



# Udala mintzo

## 2015. urtean herrian burutu diren proiektu nagusiak hauek dira:

### AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK

Aurten estreinakoz, udal aurrekontuaren zati bat modu parte hartzailean egin da Berrobin. 2015eko udal aurrekontuan 20.000 euroko diru partida gorde zen herritarrek proposaturiko proiektuak aurrera eramateko, eta martxoaren 12an ospaturiko eztabaidarako batzar irekian parte hartu zuten herritarrek erabaki zituzten aurrera eraman beharreko proiektuak. Horietako batzuk dagoeneko eginak daude; aipagarria da, esaterako, Soronea inguruan egindako birmoldatze eta asfaltatze lana.

Bestalde, Berrobiko kirol ekipamendu nagusiak herriko frontoia, honen ondoko erabilera anitzeko kirol kantxa eta Eskolako kirol gunea direla kontuan izanda, eta hauetatik frontoia aterpea duen instalazio bakarra dela jakinda, aipatutako aurrekontu parte-hartzaileen ekimen honetan eztabaidatutako proiektuetako baten xedea Eskolako kirol gunean aterpe bat eraikitzea izan zen. Proposamena aterpe bat instalatzea da, gutxi gora behera 590 metro karratuko gunea estaliko duena eta horrez gain, argiterian ere aldaketak egingo dira, gaur egun dauden hainbat farola kendu eta aterpeari hobeto egokitzen zaion argiteria ezarri. Era berean, euri uren hartuneak eta sarnemendu sistema berri bat ere ezarriko da.

### UDAL-TALDE BERRIA

Aurreko legegaldiko udal-taldeari kide berriak gehitu zaizkio; jakintza-esparru andana eta ibilbide profesional oso anitzak dituztenak. Horrela, hurrengo lau urteotan aurrera eramango diren lan-ildo berriak definituak daude dagoeneko, eta hasi dira lehen emaitzak bistaratzen.

### OINEZKOENTZAT IBILBIDE BERRIA

Herrigunetik San Sebastian ermitara doan bidean hainbat lan egin dira; oinezkoentzako espaloiak egin dira errepidearen bi aldeetan, eta autobusaren geltokia ipini eta inguruko maldak ere leundu dira; guztiak ere, herritarrek urteetan egindako eskaerak izan dira. Aldi berean, gas-hodi kanalizazio berriak eta estoldetako uren birbideratze lanak ere burutu dira.

### ABIADURA MOTELTZEKO ETA TRAFIKOA BIDERATZEKO LANAK

2014an Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako parte hartze prozesutik abiatutako proiektua da. Herritarrek Foru aurrekontuen atal bat zertan gastatuko zen erabaki zuten, eta Be-

rrobik 90.000 euroko aurrekontua jaso zuen abiadura murrizteko lanetarako.

Errepideko lanak ez dira herriko gunek batera mugatu. Aitzitik, herriko gunek ezberdinetan egin dira aldaketak: herri sarreran, Tolosatik etorrira, semaforo bat jarri da lehen zebra bidean. Medikuen kontsultaren, Bide-Ona Elkartearen eta San Andres Eskolaren parean, altxataka edo goratutako zebra bide bana jarri dira. Jardunbide ezberdin hauekin zeharkaldi edo pasarela deritzana egin nahi izan da, ibilgailuen gidariekin herriaren sarreratik irteera arte jarrita dagoen abiadura muga errespetatzeko eta herritarren segurtasuna areagotzeko helburuz.

### FRONTOIA BERRIZTATU DA

Frontoiko teilatua, egitura, harmailen atzealdean eta argiteria-sisteman egindako konponketa lanek harrera oso ona izan dute. Planifikatuak dauden beste birmoldaketa lanek, bestalde, bere denbora beharko dute, hein handi batean Udalaren baliabide ekonomikoek baldintzatuta.

### ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA

Udalak Alonso-Agotzanea inguruan sustapen pribatuko adosatuetara iristeko eraiki beharreko bidearen inguruan igorritako bideragarritasun azterketa batean aurkeztutako 1.135.452 euroko aurrekontua onartzeari uko egin dio. Bestalde, herriko beste zenbait lur-sailen kalifikazioa ere aldatu eta eguneratu egin du.

### GOIENER KOOPERATIBARA ATXIKITZEA

Udal ekipamendu eta instalazioetako sare elektriko gehienak dagoeneko Goiener Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatibara atxikiak daude. Jatorri berriztagarria duen energiaren baliatzea, ekonomia iraunkorra garatu, eta labor esanda, herritarren parte hartzearen aldeko mugimendu sozial baliatu nahi du ekimen honek.

### UDALAREN WEB ORRIALDE BERRITUA

Herritarren erreferentziatzeko informazio-iturri bihurtu nahi du Udalaren web orrialde berrituak. Unean-uneko informazio eguneratua eta irisgarria jasoko du, eta egungo baliabide telematikoen ezberdinekin integrazio osatuagoa eskainiko du. Dagoeneko martxan da web orrialdearen egitura berria diseinatzeko osatu den herritarren lan-taldea.



## Kristalezko baratza

Kristalezko Baratza bezala ezagutu da azken hilabete hauetan Mapik (Barazki Bizidunak) hasi duen mugimenduak. Joan den uztailaren 3-4 gauean gertatutako kazkabarren ondorioz, bere negutegiak izugarritzko kalteak jasau zituen eta geroztik etengabeko esfortzua egiten ari da jarduerari buelta emateko.

Hala ere, labur-labur gogoratu dezagun nor den Mapi eta zein den bere historia. Igaro dira urte mordoxka Telleri baserriko negutegiak jabez aldatu zuenetik. 2011ko abuztuaren 1an egin zen transmisioa eta ordutik Mapi da Barazki Bizidunak negozioaren jabea. Nahiz eta lurrak bereak ez izan, negozio jarduera eta negutegia bereak ditu. Transmisio horretan diru laguntza batzuk lortu zituen eta nahiz eta inbertsio pixka bat egin behar izan zuen, bizitza guztirako lanpostu bat atera zezakeela ikusita, aurrera egin zuen. Lanpostu etiko bat lortu nahi zuen bere bizitzarako eta horretarako aukera paregabea ikusi zuen: ekologikoan ekoiztu, natura zaindu eta jendearen osasu-

na bermatzen duten elikagaiak ekoiztea oso lanpostu duina zela pentsatu eta apustu ausarta egin zuen.

Gauzak horrela, ibilbidea hasi eta bide onetik zihuan. Azokatik azokara ibiltzen zen eta soberakinak ekologiko banatzaileei ematen zizkien. Ezbeharraren hurrengo egunean ordea, bere bizitza planteamendu guztia kolokan ikusi zuen. Guztiok gogoratzeko moduko kazkabarra botatu zuen aipatutako gau hartan eta negutegiko goiko kristal guztiak hautsi zituen.

Gertaerak zailtasun gehigarri bat zuen, segururik ez izatea hain zuzen ere. "Hasierako bi urteetan ordaintzen hasi nintzen, diru laguntzen zati bat mantentzen nuelako. Baina ondoren, ezinezko zitzaidan urtean 1200€ seguruari ematea. Hori ordaindu edo jan egin behar nuen eta ez ordaintzera behartu nintzen azkenean. Hala ere, informatu naiz eta segurua ordaindu izan banuen ere, kalteen oso zati txiki bat itzuliko ninduten, negutegia zaharra baita".

Hasieran ez zitzaion batere erraza egin aurrera begiratzeari. Baina, Ruben bere lankideari esker, aurrera egitea posible zela ikusten hasi zen. Bera oso ona omen da konponketa lanetan eta beraiei artean negutegia aurrera atera zezaketela ikusten hasi zen. Ordutik ez da geratu ere egin eta bere ideiak eta jendearen laguntzari esker, mugimendu handi bat jarri du martxan: auzolanak, kontu solidarioa, pegatinak, boletok, pankartak... "Kristalezko baratza" lelopean hartuta. "Gaur niri gertatu zait baina bihar zu izan zaitezke eta gaur laguntzen badidazu, nik ere bihar lagunduko zaitut".

Kazkabarraren kalteak hain larriak izan ziren, denbora baterako jarduera bertan behera utzi behar izan zuela. Azoketako postua gorde egingo diote etorkizunerako baina, momentuan Tolosako Azokara bakarrik joaten da. Negutegian bertan konponketa lanak egiteko bertan egotea beharrezkoa du eta azokek denbora asko kentzen dute bi gauzak batera egin ahal izateko. "Orain nire salmenta banatzaileei zuzentzen diet. Barazkia bera azoketan baino prezio xumeagoan saltzen dudan arren, kopuru handiagoak saltzen ditut eta ez naiz azoketan bezala etxera soberakinekin itzultzen". Fase hau erabiliko du bere etorkizunaz hausnartzeko. Ikusiko du ea zerk konpentsatzen duen gehiago, azoketan aritu ala aldiz, banatzaileentzat eta kontsumo taldeentzat lan egin.

Orain teilatu berria egitea lortu du. Ez da lehengoa bezalakoa baina momentuz jarduerarekin jarraitzeko aukera ematen dio. Hilabete eta erdi topera ibili da teilatua egiteko eta orain, aislamentua besterik ez zaio falta haizea sartzea ekiditeko.

Nahiz eta kazkabar jas horrek izugarritzko buruhauste, zailtasun eta gora beherak ekarri izan, bere alde positiboa ikusten du Mapik. Jendearengandik jaso duen laguntzarekin oso pozik dago eta beraiei gabe jarraipena ez litzatekeela posible izango dio. Laguntza hau gertukoez gain, urrutiko pertsonengandik ere iritsi zaio. Andaluzia aldetik kolaborazio asko jaso du eta baita atzerriko jendearengandik ere. Erasmusera etorritako bi talde bertan laguntzen izan ditu bi txandatan eta solidaritate guzti honekin oso eskertuta agertzen da.

Bere esker on guztia adierazi nahi die, herriari, lagunei eta sektore desberdinetatik jaso duen laguntzaileei.



[www.facebook.com/lahuertadecristal](https://www.facebook.com/lahuertadecristal)

[www.facebook.com/barazkibizidunak](https://www.facebook.com/barazkibizidunak)

Mugikorra: 687 878 936



# ANTZERKI ESKOLA

Egun berezia izaten da herrian, urte guztiko lanaren emaitza oholtza gainean, Hollywoodeko Oscar Sarietan baino ikusle gehiago biltzen da proportzioan. Saio bakarra ematen hasi ziren, baina jende arrapala biltzen zela eta, bi emanaldi ematea erabaki zen. Herriko ikasleak eta irakasleak aktore bihurtzen dira eta gurasoak, osaba-izebak, anai-arrebak, aiton-amonak ikusle finak. Oholtza gainean daudenak urduri eta ikusleak berriz antzerki emanaldia ikusteko gosez. Urtero kultur astean errepikatzen den estampa da, emozioz eta ikusmiñez bizi duguna herrian.

Urteak dira eskola orduetan antzerkia lantzen dela: Oskar izan genuen lehen antzerki irakaslea, Txemak hartu zuen lekukoa gero eta azken 12 urteetan Elena Aranbarri du gure herriko neska mutikoak aktore bihurtzeko ardura.

Ostiralero etortzen da eta ikasleek harrera ezin hobea egiten diote ordubeteko saioari. Urtebeteko lanak Kultur Astean ematen du fruitua jende aurrean, baina antzerkiak, oholtza gainean egoteak, balore asko lantzen ditu urte guztian zehar "umeen ongizate pertsonala eta soziala hobetzea

da antzerkiaren helburua, gorputz-espresioa eta ahozkoa bultzatzea komunikazioa hobetzeko. Elkar lana sortaraztea, baloreak lantzea, norbere konfidantza lortzea, enpatia, kooperazioa eta sormena lantzea. Hori guztia da antzerkia" dio Elena Aranbarri.

Eskolako irakasleek ere gogo biziz bizi dute antzerki tailerra eta urte amaierako saioa. "Edozein pertsonentzat oso aberasgarri da antzerkia" diote eskolako irakasleek aho betez "Norbera oholtza gainean dagoenean erronka handia du bere buruarekin. Umeak oso ziur egoten dira, aurretik oso ondo lantzen delako eta arrakasta izaten da norberarentzako".

Bakoitzak bere neurrian, batzuk ausartago, beste batzuk lotsatiago, urduriago edo lasaigo baina denak dira oholtza gainean egoteari aurre egiteko gai. Pazientzia lantzeko ere lagungarria dela diote irakasleek "beren txanda iristi arte itxaron behar dute urduritasunak urduritasun, eta besteak dioena entzun gainera, gero bakoitzak bere papelari segida emateko".

Urtean zehar landuko den antzerki obra prestatzeko lanetan udaran hasten da Elena.

Antzerki obra ezberdinak irakurtzen ditu eta gero eskolako irakasleen laguntzarekin, balore ezberdinak eta erronka berriak lantzen diren lanak aukeratzen dituzte. Antzerki lan asko gaztelaniaz daude eta hauek itzultzeaz 5. eta 6. mailako ikasleak arduratzen dira.



Iraskaleak ere antzerki eskolako partaide dira, lotsak alde batera utzi eta oholtza gainera igotzen dira "ikasleentzat aberasgarria da hau, denak neurri berdinean jartzen bait gara pertsonaia ezberdinen paperak interpretatuz, besteen lekuan jarritz".

Iraskaleentzat ere ikasketa prozesuan izaten da "lotsak alde batera utzi eta barruan dugun umea lantzen dugu, entseguetan oso ondo pasatzen dugu, umeekin bihurrikeriak egiten ditugu, talde bezala sendotzeko oso balio-garria da".

Urte guztiko lanaren emaitzak Kultur Astean ikusten du argia. Urtero bi eskola gonbidatzen dituzte emanaldieta eta aho bete hortz geratzen direla aipatu dute irakasleek. "Elena profesionala dela nabaria da eta eskolan bere presentzia izatea pribilejioa da. Gonbidatzen ditugun herrietako eskolak inbidia - sanoa - izaten dute gure emanaldia ikusita" azaldu du Leirek, eskolako zuzendariak.

Elena Aranbarri ere pozik etortzen da Berrobira, "umeekin lan egiteak energia positiboa" ematen diola dio eta bide batez "denok barruan dugun ume hori bizirauten lantzen dit" dio.

Antzerkiaren balio positiboak aipatu dituzte sarritan Elena eta eskolako irakasleek "autokonfiantza, jende aurrean hitz egiteko ahalmena, sormena, ahozkotasuna..." eta emanaldian biltzen garenok ere jabetzen gara antzerkiak barruan dugun artista txikia azalaratzen duela.

Berrobiko **"Barazki Bizidunakeko"** langileak jende guztiarengandik jasotako laguntza eskertu nahi dugu, kazkabarrak eragindako kalte haundiaren ondoren. Zuen laguntza barik ez litzateke posible izango negutegia biziberritu izana. Hasi genuen bizi proiektuari jarraipena ematea zuei esker izango da.

Beraz bihotz-bihotzez eskerrik asko lagundu diguzuen guztioi eta gure prestutasuna adierazten dugu herriak laguntza behar duenean erantzuna emateko.

**Berrobi herri handia!**

**BARAZKI BIZIDUNAK**



Made by Munksjö™

**Munksjö Paper, S.A.**

Eldua

20492 Berástegui, España

Tel. +34 943 683 032

Fax +34 943 683 398

[www.munksjo.com](http://www.munksjo.com)

# Berrobitar, jalgi hadi dantzara!



**Gorputza mugitzea omen da dantza eta argi dago Berrobitarrek aspaldidanik menderatzen dutela gorpuzaren mugimendua. Azken urteotan dantza-eskoletan ikasitako koreografieta ohituak gauden arren, horren aurretik bide luzea izan du plazako dantzak. Denborak aurrera egin ahala aldatzen joan da dantza ikasi, dantzatu eta bizitzeko era. Halere, modu desberdinean bada ere, dantzarako grinak ez du etenik izan berrobitarren artean.**

## DANTZA PLAZAKO KONTUA ZENEOA

1980ko hamarkada ingurura arte dantza plazan ikasi eta egiten zen. Beraz, dantzari berriek plazan dantzan ari zirenei imitatuz ikasten zuten. Batez ere herriko eta inguruko herrietako festetan antolatutako erromerietan egiten zen dantza. Berrobiko festetan udaletxe aurreko plazan trikitixa, pandero eta ttuntunaren doinuekin koadrila polita biltzen zen. Festa egun guztietan egiten zen erromeria eta zuzenean jotzen zuten musikariek. Gazte zein heldu, neska ala mutil, denetik aritzen zen gustura dan-

tzan. Halere, neskak izaten omen ziren lehenak dantzara animatzen, mutilak berriz, lotsatiagoak ziren plazara ateratzerakoan. Plazako dantzak izaten ziren nagusi garai hartan, hau da, dantza sueltoak. Tarteka-marteka baltsen bat jotzen zuten eta oso gutxitan izaten zenez, ondo aprobetxatu behar izaten zuten plaza erdira ateratzera ausartzen zirenek. Dantzan aritzen zirenez gain, beste horrenbeste edo agian gehiago egoten omen ziren inguruan begira. Dena den, 1970-80 inguruan Egan eta antzeko taldeak sortutakoan aldaketa handia eman zen plaza giroan. Dantza sueltoak beharrean agarrao dantzatzeko abestiak edo rok-a jotzen zuten batez ere, baita tarteka dantza sueltoren bat edota Axuri Beltza bezalakoak ere. Maria, Bernabe eta Vittorik diote gaur egun ez dela garai batean bezala dantzarik egiten, soinu asko eta dantza gutxi egoten dela plazan. Dantzan inor ez ikusteak tristura ematen die, beraiek dantza egiteko gogoz egoten baitziren. Izan ere, apaiza zelatan izaten zuten jendea txintxo zebilela ziurtatzeko eta gainera, iluntzean ave mariak jo orduko etxera joan behar izaten zuten gehienek. Gaur egun lasai ederrean dantza egiteko aukera izan eta tamalez jendeak aukera aprobetxatzen ez duela iruditzen zaie.



### LEHEN DANTZA KLASEAK BERROBIN

1980ko hamarkadan hasi ziren lehen dantza klaseak Berrobin eta Miguel Zeberio etortzen zen Tolosako Udaberri taldetik klaseak ematera. Dozena bat lagun baino gehiagoko taldea osatu zen. Etxolan izaten ziren klaseak eta dantza tradizionalak ikasten zituzten. Klaseetan ez zuten musika aparailurik erabiltzen eta maisuak aritu behar izaten zuen tralari-trolori abestuz. Hiruzpalau urteren buruan amaitu ziren klaseak.

Garai bertsuan hasi zen urte gutxi batzuk iraun zuen San Agustinetako dantza suelto txapelketa antolatzen eta klaseetara joaten zirenak edota zahartxoagoak ere animatzen ziren parte hartzera. Txapelketa plazan izaten zen eta herrikoek soilik hartzen zuten parte txapelketan. Festetan egiten ziren erromeriek ere antzeko jarraitu zuten eta animotsu biltzen ziren batez ere dantzari beterranoak. Horretaz gain, bazen San Agustin egunean Elizan dantza egiteko ohitura eta herrikoek ikasi zuten arte Udaberri taldeko dantzari pare bat etortzen zen. Lehenengo Eliza barruan ezpata dantza egiten zuten, hau da, santu santu-aren ondoren dantza egin eta gero apaizak mezarekin jarraitzen zuen. Meza bukatutakoan udalkideei agurra dantzatzen zieten Eliza atarian. Gaur egun ezpata dantzarik egiten ez den arren, mezaren ostean herriko trikitilarien soinuarekin agurra dantzatzen diete herriko dantzariak udalkideei.

### INDARTSUAGO HASTEKO ETENA

Esan bezala, hiru-lau urte iraun zuten dantza klaseek Berrobin eta jarraitu nahi izan zutenek, David Tolosak esaterako, Tolosara jaitsi behar izan zuten Udaberri taldera. Beraz, urte batzuetan ez zen dantza ikaslerik izan herrian.

Horregatik, San Agustinetan eguerdiak edota arratsaldeak alaitzeko dantzariak behar izaten zirenean Udaberri taldekoak etortzen ziren. Kontxi Belaunzarane dio herri gehienetan ohitura handia zegoela arratsaldetan dantza taldeak ekartzeko. Berrobin halako emanaldiak frontoian izaten ziren. Dantzari, neska zein mutil, eta zuzenean jotzen zuten musikarien artean 25 lagun inguruko taldea osatzen zuten. David Tolosak azpimarratzen du ikuskizuna horrenbeste lantzen ez zen arren emanaldiak "en vivo" zirela dantza, arropa eta musika aldetik. Gainera, dantzaren arabera ere arropa aldatzen zuten, adibidez, Gipuzkoako dantzak egiteko arropa batzuk janzten zituzten eta Bizkaikoak egiteko beste batzuk.

Dabidek eta Kontxik parte hartu izan zuten frontoian egindako emanaldietan eta iruditzen zaie jendea gustura egoten zela dantzak ikusten. Gaur egun koreografia eta musika modernoetara ohituta gauden arren, urte horietan dantza eta musika tradizionalak ziren nagusi. Berrobiko eta inguruko herrietako jaiak ezagunak izaten jarraitzen zuten, baina programa ere aldatzen hasia zen pixkanaka. Jadanik erromeriak egun pare batetan izaten ziren eta batez ere herrikoei zuzenduta. Gainontzeko gauetan Akelarre, Minxoriak eta antzeko taldeak etortzen ziren.

### UDABERRI TALDEA BERROBIN

Dantzan aritzeaz gain, irakasle lanetan ere aritzen zen David Tolosa. Berastegira joaten zen laguntzera eta 1996an Berrobin dantza erakusteko eskaintza egin ziotenean gustura onartu zuen. Dozena bat gaztetxoko taldea osatu zuten, herrian klaserik ez zegoelako ordura arte Udaberrin ikasi zutenak eta hasi berriak bilduz. Etxolan izaten ziren klaseak eta gaztetxoek dantza tradizionalak ikasten zituzten: agurra, arin arina, fandangoa, zinta dantza, uztai dantza etab. Ondoren ikasitakoa herriko festetan eta Kultur Astean erakusten zuten.

Urte batzuren buruan Dabidek Berrobiko dantza irakasle kargua utzi zuen eta bere ordeztu Jorge etorri zen. Urte pare bat beranduago Andoni iritsi zen, Udaberrin talde hau ere. 1990. hamarkadako azken urteak ziren. Andonirekin bi talde osatu ziren aurrekoei gazteagoen beste bat gehitu zitzaionean. Beraz, asteen behin dozena bat gaztetxo biltzen ziren talde bakoitzean, lehen txandan gazteenak eta ondoren zaharxeagoak. Udaberrin taldearen dinamika jarraitzen zenez dantza tradizionalak ikasten zituzten, hau da, ez zen koreografiarik egiten. Andoniren etorrerarekin dantzari berrobitarrek ikasitako dantzak Alegiko jaietan plazaratzeko aukera izan zuten Andonik bertan ere klaseak ematen zituelako. Era berean, Alegikoak Berrobira ere etortzen ziren dantzara. Halako esperientziak ederrak zirela diote Andoniren ikasleek, izan ere, ondo pasa eta lagun berriak egiten zituzten.

Andoniren ikasle gazteenak izan zirenek gogoan dute klasean egiten zutena. Lehenengo, maisuaren inguruan esertzen ziren eta bakoitzak egun hartan bazkaldutakoaren berri ematen zuen. Bigarren, kriskitinak entseatzen zituzten eta jarraian kriskitin eta txaloz osatutako joko bat egiten zuten. Hirugarren, jolasen bat egiten zuten beroketa ariketa moduan. Azkenik, dantzan hasten ziren.



## ALURR TALDEA BERROBIN

2005 urte inguruan Alurr taldeak hartu zuen herrian gelditzen ziren 10 dantzarien ardura. Hasierako pare bat urtetan Oihane izan zen horren arduradun. Gelditzen ziren dantzariak agurra, sorgin dantza, zapatariaren dantza eta antzekoak egiten ikasi zuten ordura arte. Alurren etorrerarekin dantzen errepertorioa zabaldu egin zen gipuzkoanoa, zinta dantza eta antzekoak ikasi zituztenean. Bestalde, lehen aldiz luzaketa ariketak egiten hasi ziren modu serioago batean.

Pare bat urte beranduago Oihane irakaslea joan eta Itziar etorri zen, dantzari kutsu serioago bat emanez. Jadanik

zazpi neskek bakarrik osatzen zuten herriko taldea. Itziarrekin koreografiak egiten hasi ziren estreinakoz eta dantza berri mordoa ikasi zuten: fandangoa, arin arina, bana-koa etab. Gainera, lehen aldiz dantza klaseak eskola berrian izaten ziren eta musika ekipoa erabiltzen zuten dantzarako. Aipatzekoa da alpargatak erabili beharrean dantzarako txapinak erabiltzen hasi zirela orduan. Pixkanaka emanaldi gehiago ematen hasi ziren: Ibarra Alurrek antolatzen duen dantzari txiki egunean, herriko festetan, aste kulturalean eta denbora gutxi iraun zuen arren, Berrobin hilean behin egiten ziren erromerietan.

2008 urte inguruan, horren talde txikirako irakasle bat Berrobira etortzea konplikatu zenean ikasleei Ibarra joatea

## KONTXI BELAUNZARAN:

“Lehengo dantza ez da galdu behar, baina berriak ere sortu behar dira”

Herriko festetan ezagutu zituen Kontxik udaberri taldekoak 15 urte zituela. Tolosako Udaberri taldera batzeko eskaintza egin zioten eta gustura hasi zen dantza klaseetara joaten. Onartzen du garraioaren kontua ez zela erraza, etxetik herrira jaitsi eta jarraian Tolosara nolabait joan behar zuelako, baita klasea amaitutakoan bidea alderantziz egin ere. Baina gustura dago erabakiarekin, dantza klaseetan jarraitu baitzuen 15 urtez.

Udaberriko klaseetara joan aurretik berbenetan egiten ziren dantzak bakarrik ezagutzen zituenez, dantza mordoa ikasi zuen bertan: soinu-zahar, Gipuzkoanoa, Jaurrietako dantza, Arabakoak, Larrain dantza, Lapurdiko dantzak, Burgeteko dantzak ... Bizpahiru egunetan izaten ziren klaseak eta dantzak ikasi edota pausoak fintzen aritzen ziren. Hemendik gertu emanaldiak eskaintzeaz gain, irteera asko zuen Kontxik dantza taldearekin: Bretainiara, Irlandara, Alemaniara, Italiara, Salamancara, Jacara, Gijonera etab. Dantzaz haratago, Udaberri taldeak nerabezaroko garaian lagundu ziola iruditzen zaio Kontxiri, bertako giro ona eta lagun bidez bide nahasiagoetatik ibiltzea saihestu baitzuen. Horretaz gain, Legorretan irakasle lanetan ere aritu zen urte pare batez.

Erromeriei dagokionez, 50 urte atzera joanda dantza asko egiten zela uste du eta beraz, jende askok zekiela dantzan. Ondorengo garaian giroa aldatu eta dantza gutxiago egiten zela iruditzen zaio. Izan ere, bere adineko jende askok beren burua defendatzeko moduan dantzan badakiten arren, klaseetan aritu ez zirenek dantzarekiko lotura txikiagoa dutela uste du. Horregatik, azken hamarkadetan orokorrean erromerietan jende gutxi dantza egiten duelakoan dago, nahiz eta ausarten bat animatzen denean jendea plazara ateratzen den.

Kontxiren arabera gaur egun jendea gauza harrigarri asko ikustera ohitua dagoenez, askotan ez da jabetzen dantza emanaldi bat prestatzeko atzetik dakarren lanaz. Bestalde, koreografia oso politak egiten diren arren, uste du “lehengo dantza ez dela galdu behar, baina berriak ere sortu behar direla”.



proposatu zitzaizen dantzan jarraitu ahal izateko. Bertan beste herrietako dantzariekin (Anoeta, Berastegi, Tolosa, Gaztelu, Elduain etab.) talde ederra osatu zuten eta denboraren poderioz kide batzuk joan eta berriak etorri badira ere, egundaino mantendu dute taldea. Alurren ordura arte ezezagunak ziren hainbat gauza topatu zituzten: dantza tradizionalaz haratago joatea, artzain andre arropak ez ziren soinekoak, ilea apaintzea, irteerak egitea, hainbat herritan emanaldiak egitea... Horrela, berrobitar batzuk Alurren familia txiki-handiko kide berri bihurtu ziren.

Urtebeteko etenaldiaren ondoren, guraso elkarteak eta Alurr taldeak eskola osteko ekintza moduan dantza egiteko aukera eskaini zuten berriro ere. Hala, gaztetxo talde

polita osatu zuten eta kopuruagatik bi talde osatzera iritsi izan dira. Azken hauek ere zenbait emanaldi eskaintzen zituzten urtean zehar: Kultur Astean eta Ibarrako edota Tolosako dantzari txiki egunetan. Aipatzekoa da azken hiruzpalau urtetan herrian dantza ikasten duten hurrek Olentzeroren etorrera ospatzeko dantza emanaldia eskaintzen dutela Abenduaren 24an. Gaztetxo hauek hasieratik CD-etako musika erabili dute dantzarako eta dantza tradizionalak zein koreografiak egin izan dituzte. Azken urtean dantzari kopuru urriagatik hurren taldea soilik atera da aurrera Horregatik, jarraitu nahi izan dutenek Ibarrako taldera joan behar izan dute azken urteetan finkatzen joan den biderei jarraituz.

## DAVID TOLOSA:

### “Garai hartan dantza asko egiten zen”

David bakarrik ez gelditzearren hasi zen dantzan Berrobin, ia nahigabe, eta azkenean jarraitu zuen bakarra izan zen. Beraz, dantza plazan beharrean klasean ikasi zuen lehen belaunaldikoa izan zen. 12 urte ingururekin hasi zen dantzan eta Berrobiko lehen dantza klaseetako ikaslea izan zen. Herriko klaseak amaitu ondoren Tolosan Udaberri taldera joatea animatu zen 16 urte zituela eta bertan jarraitu zuen dantzan 22 urtera arte.

Tolosan astean lau egunetan entseatzen zuen, saio bakoitzak bi ordu irauten zituelarik. Horrela soilik uler daiteke urtebetean ia euskal dantza guztiak ikastea: Bizkaiko dantzak, Gipuzkoako dantzak, Otsagiko dantzak, Lapurdiko dantzak, Larrain dantza, Zubietako dantzak... Behin errepertorio osoa ikasitakoan dantza horiek behin eta berriz egin zituen hainbat herritako festetan, ezkontzetan eta Elizetan. Orokorrean emanaldi gehienak udan izaten ziren. Ikasitakoa plazan erakusteko beharra azpimarratzen du Davidek, hau da, jarraitzeko garrantzitsua dela jendaurrean dantza egiteak ematen duen motibazioa.

Udaberri taldean oso giro ona zutela azpimarratzen du, izan ere, elkarrekin ordu asko entseatzeaz gain, sarritan entseguak amaitutakoan elkarrekin joaten ziren erromeria zegoen inguruko herrietara. Bestalde, inguruko herrietan (Elduain, Berastegi, Tolosa, Alegi, Orendain...) dantza erakustaldiak egiteaz gain, urrutiago ere joaten ziren (Bilbo, Durango, Galdakao, Azpeiti, Zarautz, Lizarra, Sanguesa, Valladolid...). Aipatzekoa da atzerrira ere irteera asko egiten zituztela, esaterako Frantziara, Suitzara, Austriara, Hungariara etab.

Dantza irakasle izan zen garaiari dagokionez, iruditzen zaio orain kontzientzia gehiago dagoela umeei erakusteko, ez zaizkie gauzak 7000 aldiz errepikarazten, beste era batera baizik. Modu horretan dantza haurrentzat era entretenigarriagoan planteatzen dela uste du.

Azkenik, gaur egun erromerietan plazak ia hutsak ikusten direla dio, baita Berrobikoa ere. Garai hartan dantza asko egiten zela uste du eta orain baten bat animatzen denean jendea plazara ateratzen dela, baina asko kostata eta denbora gutxirako.





**Goian ezkerretik eskuinera:**  
Paco Hernandez, Antonio Soria,  
??, Juan Caballero  
**Behean ezkerretik eskuinera:**  
Jabier Murua, Luis Eizmendi,  
Dionisio Caballero eta Pedro  
Antonio Martinez

## ✻ A ZE GARAIAK HAI EK

Dirudienez, Berrobin, Erreal eta Athleticen artean dugun lehiakortasuna aspalditik dato- rren kontu bat da. Seguruenik, duela 45 bat urte bertan daudenen ametsa talde horietako batean amaitzea izango zen. Herrian bertan jokatzear gain, Elduain, Belauntza, Berastegi eta Aresoko beste taldeen kontra ere jokatzaren zuten. Ez zuten ligatxorik egiten, partidu la- gunkoiak izaten ziren baina herri arteko pikeak orduan ere existitzen ziren. Garrantzitsuena beraiek duten oroitzapena da, oso talde ona izan omen ziren, barre asko egiten zutela eta oso momentu onak igarotzen zituztela elkarrekin.



## ☀ ZORIGAIZTOKO GERRA

### **A priest watches a lorry load of rebels off to one of the various fronts.**

"Apaiza bat, frentera dijoan errebeldez kargaturiko kamioi bati begira."

Horrela dio, gutxi gora-behera, argazkiaren oinak. Zimitorio ondoko eskailleratan dagoen apaiza, Rikardo Alzola da seguraski.

"Gerra, zeozer bazetorrela bai, bagenekien. Aintzerreka alde horretan izen zen lehen tirotea. Gu, etxetik gorago ari ginen, soroan garia ebakitzen. Auzokoak esan zigun : fusilen tirok die hoik. Gerra hasi da. Gure alderdiko mendian behera hurbildu zien Berastegitik, gorriek kontra egin zieten ordea eta berriz ere haruntza joan zien. Gero beste aldetik jaitsi ziren Berrobira "

### **Anbuko Lontxo Dorronsoro.**

"Gerra? Garai hartan kamioi koskor bat zen txekorrak mataderora eramateko. Berastegikoa. Kamioi hura jendez bete eskopetak hartu eta Berastegi eta Nafarroako mugara joaten zen. Berrobiko inor ez zen joan. Nafarrak Santiago egunean sartu zien menditik behera, gure baserritik behera. Jai arratsaldea zen, Santiago eguna. Guk soldaduk ikusi genituenean, dedio, belar pilen gordetzen ibili ginen. Ez ziguten guri kasurik egin. Ura eskatu, ura eman eta pasa zien".

### **Seskeako Martin Iturriza.**

AHOTSA.COM etik hartutako testigantzak.

# Aritz Aierbe:

## “Motxila uzten dudan lekua, berehala nire etxe bihurtzen da”

Juan Sebastian Elkano izan zen munduari bira eman zion lehen gizasemea. Euskaldunak abenturazaleak garenaren froga. Julio Vernerren “Munduari 80 egunetan itzulia” nobelan, 80 egun behar izan zituen Philiass Foogek munduari itzulia emateko. Itzalpean geratu zen Nelly Bly kazetari estatubatuarren ausardia, 72 egun bakarrik behar izan bait zituen munduari bira emateko 1887an. Pertsonaia hauen pausoak jarraitu dituzte Aritz Aierbe eta Elena Irigoienek, presarik gabe baina, Marruekoson dioten bezala “prisa mata” (presarik hil egiten du) leloa aintzakotzat hartu eta munduaren Ekialdea eta Mendebaldea iparretik hegora gurutzatu dituzte. Mundua dute bizileku azken bi urte hauetan, Asia, Ozeania eta Hegoamerika babesleku hartuta, itsasoz bestaldetik erantzun dizkigu galdera hauek Aritzek. Bejondeizula bikote!

**2014 ko errege egunean motxilak prestatu eta zuen bidaiari hasiera eman zenioten, bukaera jakinik gabe. Erreza izan al zen erabakia hartzea?**

Aspalditik genuen ideia hau buruan bueltaka, urte bete-ko eszedentzi bat hartu eta Hegoameriketan bidaiatzeko. Gure udarako bidaietan, urte 1, 2 edo 3 urte bidaiatzen zezaraman jendekin topatzen giñen. Gu berriz 20 egun juxtu-juxtu eta korrika handik hona. 2012ko urrian hartu genuen erabakia eta ez naiz damutzen. Alderantziz, pertsona guztiak animatuko nieke.

**Zuen buruan nola hartu zuen forma ideiak?**

Hasieran, Hego-Amerika zehartzako asmoa zen, urte batez. Argentinan hasi eta Mexikoraino. Baina erabakia hartu genuetik hegazkina hartzerako urte bat pasa zenez ideiak aldatuz joan ziren. Asian ibilitako jendearekin hitz egin, dokumentalak ikusi, liburun bat irakurri eta bidai luze bat egiteko aukera izanda, Asiatik hastea erabaki genuen.

**Lanean baimena eskatzea erreza izan al zen?**

Bai, egia esan nik suertea daukat eta lana egiten dudan tokian ez zidaten inongo eragozpenik jarri.



**Ametsak betetzeari beldur ote diogu oraindik?**

Gizarteak markatzen duen bidetik ateratzea ez da errexeratu batzuetan. Baina benetan buruak esaten dizuna egiteak ematen dizu bizi-poza.

**Zer erakutsi dizu munduak bi urte hauetan?**

Milaka irrifar, ehunka pertsona desberdin, kulturak, erlijioak, azalako kolore desberdinak, bizitzeko toki eta modu asko. Bidaiatu dugun herrialde pobreetan, bizitzeko era xumea eta sinplea.

**Bidaiatzea eskolarik hoberena iruditzen al zaizu?**

Bai, bidaiatzen oso egoera ezberdinetan ikasten duzu molatzen, erabakiak azkar hartzen edo intuizioa jarraitzen. Beldurrak kentzen dituzu eta zeure burua hobeto ezagutzen duzu. Jendearekin irekiagoa izaten ikasten duzu. Mundu eta mota guztitako jendearekin harremanak izaten dituzu, eta horrela ere inglesa ikasteko aukera izan dut.

**Nolakoa zen hasierako hartako Aritz eta nolakoa da orain?**

Bidai hau hasi aurretik mendian asko ibiltzen nintzen, bai bizikletaz baita oinez ere, ez dut inoiz perezarik eduki mo-


txila prestatzeko eta berdin zitzaidan nora atera. Bidai honetan esperientzi asko eta gauz asko ikasi ditut, baina oraindik motxila prestatu norabaitera ateratzeko gogo berdiña izaten jarraitzen dut.

### **Zein gauzek zuten garrantzia lehen eta zeintzuk orain?**

Konturatzen zara gauza material gutxikin ondo bizitzea badagoela. Munduko jende asko haiek landutako baratza eta haiek egindako etxeetan bizi dira, bakoitza bizitzak ematen dion aukerekin bizitzea, disfrutatzea.

### **Xelebrekeriren bat kontatzeko?**

Vietnamen moto bat erosi eta iparraldeko mendietan barrena genbintzala, herri txiki baten geratu giñen. Afaltzeko orduan buelta batzuk eman ondoren, azkenen jatxetxe bat bilatu genuen. Baina ez zuten menua ingelesez eta komunikazioa zaila zen. Zerbitzari bat haragi bandeja batekin ikusi genuen eta esan nion hori bera nahi genuela, oso itsura ona baitzuen. Eta oso goxoa ere, gogokin hasi giñen. Baina konturatu giñen ez zela txerria, ez oilaskoa ezta txekorra ere. Txakurra zen. Bandeja bukatu gabe geratu zen. Gero esan ziguten eta ikusi ere txakur haragia oso estimatua dela eta asko jaten dela Vietnamentan.



### **Bidaiatzen zaudenean ez al zaizu iruditzen zu bezela jende guztia bidaiatzen dabilela? Denak zure bizimodu bera hartu dutela?**

Bai, gu bezalako mundu guztiko bidariekin topatu gara, baino gehiena jende gaztea, Unibertsitatea bukatu eta urte beterako bidaiatzen duen jendea lanean hasi aurretik. Nere ustez oso erabaki ona da.

### **Zer inspiratu dizu Asiak eta zerk Amerikak?**

Bi kontinenteak oso desberdinak dira. Asia guretzat oso exotikoa da, koloreak, ohiturak, kulturak, erlijioak. Hegoameriketaren berriz, gure kulturatik gertuago, gehien bat hizkuntza eta erlijioa. Baina konturatu gara ere talde indigenetan gauz batzuetan oso parekoak direla Asiakoak eta Hegoamerikakoak, aurpegiko rasgoak, azalako koloreak, jatzeko era, naturarekiko harremana, emakumeen egoera gogorra eta pobrezia. Asiatik pasatu ziren Ameriketara aintzinako gizakiak eta hori nabari da. Herrialde batera iristean eta bere istorioa, bizimodua, ohiturak ikusi eta ikas-tean ezer ez dakizun irudipena eduki al duzu?

Bidai luzea egin dugu baina herrialde asko zeharkatu ditugu, beraz ez digu denbora herrialde bakoitza sakon-sakon ezagutzeko. Herrialde guztitatu zer bait ikusi eta ikasi dugu, baina inoiz ez da nahikoa

### **Gure gizartean dena dakigunaren ustea dugu, beste lurraldeak, jendea eta ohiturak gutxiesteko joera, ados al zaude?**

Erabat ados nago. Alde batetik herrialde aberats baten bizi gara, bisitatu ditugunekin konparatuta, eta iruditzen zaigu guk aberatsak, garatuak, pobreak baino gehiago dakigula, dugula eta garela. Baina pertsonekin bizimodua, esperientziak konpartitzen dituzunean, maila berean kokatzen gara. Pertsona guztietatik badago zer ikastea.

### **Zein herrialdetan jan duzu hobetoen?**

Neri pikantea eta gauz ezberdinak jatea asko gustatzen zait. Indiako janaria oso zaporeduna da eta plater oso desberdinak dituzte. Ameriketaren berriz Mexikoko janaria oso berezia eta bariatua, baina orain Perun nagoenez hemengo "ceviche" mundiala dago. Dena den, 2 urte hauetan nahikoa arrosa eta oilaskoa jan dugu.

### **Zure mailetan zer duzu?**

10-12 kilokoa da. Lotako kanpin denda, arropa gutxi, zapatillak, txankletak, portatila, liburu bat, egunerokoa, garbitasun pertsonalerako nezeser txiki bat, matxetea eta tiritak batzuk.

### **Paperezko liburuak edo elektronikoak?**

Liburu paperezkoak eta bukatzen ditudan beste batekin trukutzen ditut.

### **Gomendatuko al diguzu liburen bat?**

"Atrapa tu sueño" Familia Zapp, Hernan eta Candela Bidaia prestatzen ari giñela irakurri nuen, oso ona. Bidaia honetan ikaragarri irakurri du, azken 2 urte hauetan nire bizitza osoan baino gehiago dut.

### **Bidaiatzeak mundua ezagutzeko gogo gehiago piztu al dizu?**

Normalean bidai bat bukatzerako hurrengo pentsatzen hasten naiz, nahiz eta astebukaera baterako izan, eta nahiz eta bakarrik joan. Hurrengo helburua Afrika, nere lagun Lontzokin (Julen Belaunzaran) motoan!!!

### **Afrikara motoan?**

Urtarrilearen erdikaldera aterako gara, Maroko gurutzatuko dugu eta kostarik kosta Sahara, Mauritania, Senegal, Gambia eta agian Malitik Burkina-Fasora pasako gara. Herrialdearen egoeraren arabera sartuko gara Burkinara.

### **Itzulerako data pentsatu al duzue?**

Lau bat hilabeteko kontua izango da. Lontzo da gidaria eta bere esanetara nago, kar, kar, kar...

### **Herri mina sentitu al duzu?**

Motxila uzten dudana tokia, berehala nere etxea bihurtzen da. Baina familia, lagunak, etxeko janari goxoa, barruan daramatzat nahiz eta urrutu egon.

# Iturburuko itturri zaharra

**Ermitako auzorako espaloiak eta aparkalekuak jartzeko obra dela eta, aurten Iturburuko labaderorik gabe geratu gara. Bota ondoren, iturria jarri dute auzotarrek hango ur onaz gozaten jarrai dezaten, baina labadero bat gutxiago dugu orain.**

Berroberriko 5.alean, labaderoen artikulua bat atera zen eta han esaten zen bezala, garai batean bost labadero behintzat bazeuden, gehi baserrietakoak. Elizaren atzekoa, orain dela 40 urte inguru bota zuten (enbarazu egiten zuelako agian, kotxeentzat batez ere) eta berria egin. Gaur egun, hau ere geldirik dago, menditik datorren ura bakarrik ateratzen da. Juanita Ibarbia eta bere familia duela 56 urte Berastegitik Alontsora etorri zirenean, Elizatzeko labaderora jeisten ziren, inguruko beste asko bezela, erropa garbitzera.

Majina bat ume-jolasen lekuko izan dira gure labaderoak. Gaur egungoak askorik ez, baina 40 urte inguruan gabiltzanontzat eta aurrekoentzat ere erakargarriak izan dira labaderoak umetan. Esan bestela Elixaldeko Ixabeli nola ibiltzen zen Juan Mari eta Josebarekin, alde batera busti edo ittotzeko moduko labaderoak eta behera errepideak... Ez hain umetan ere, txoko politak izan dira labaderoak, jolas pikaroagoetarako...

Baina gaia serio hartuta, erropa astindu edo jotzera joaten ziren garai batean emakumeak labaderoetara, etxean jaboia eman ondoren. Asto gainean saskietan, karretilan edo buru gainean, barrinoian, eramaten zuten erropa. Gustora joaten zela esaten du adibidez, Arantxa Aierzak. Argindegitik Errotako labaderora joaten zen amak agintzen zionean.

Orain bezela ez zen orduan erropa aldatzen eta ondo maraskatu behar izaten zuten koskadun egur-taula edo labaderoak harriaren gainean, garbitzeko, baita eguzkitan jarri ere orbanak eguzkiak jateko. Gainera erropa gehiena txuria izaten zen: maindire, mudak...

Carmen Rodrigo Martinez-ek kontatzen du, Cuenca-ko bere "Almonacid del Marquesado" herrian, labaderoaren ondoan, aska bat zegoela abereak ura edatera hurbil-

tzen zirena. Gizonezkoak zaldiekin bertara etortzen zirenean, makurtu eta labaderoan garbiketan ari ziren emakumeen hankak ikusteko ederki aprobetxatzen omen zuten.

Encarna Zabalak berriz, dio, Berrobiko San Agustinetan Usarreko amona Teresa Irazustarenera etortzen zela Iriarte baserrira eta hark "Bru" markako labadora zuela. Duela 45 bat urte inguru izango ziren lehenak. Hari ura eta Bilorre hauts jaboia bota eta erropa garbitzen zuen. Ondoren, barrinoi batean hartu ta Ermitako iturrira joaten ziren aklaratzera, beste asko bezela, nahiz eta etxeko iturrian ura izan. Han Birauzko Joxpantoni, gerriz behera zakuz jantzita, ikusteko gogoia izaten zuen Encarnak, izan ere, gustora entzuten zituen haren kontuak. Donostian bizi omen zuten anaia eta Joxpantonik hango nobioa zuen nonbait. "Mi novio de San Sebastián..." hau eta bestea kontatzen omen zuen.

Noski, Iturburuko edo Ermitako labaderoak bizilagunek ere badute zer kontatua.

Joxepa Garmendia Olanok gogoan du iturriaren gainean egin zuten gurutzea. Istorioak dio emakume bat mendira joan zela, eta Malaso izeneko leize zuloan erori ote zen. Handik egun batzuetara iturria zegoen uretan azaldu omen zen bere urrezko eraztuna. Milagro edo kontu santutzat hartu eta gurutzea egin zuten bere omenez. Joxepak ondo gogoratzen du, iturri honetako ura neguan epel eta udaran frexko mantentzen zela, dudarik gabe kalitate oneko ura izaki. "Eskerrak galtza bakerorik ez genuen!" dio Iturburu inguruko bizilagunak, lehertzeko bestela zenbat itxaron behar izango luketen. Gogoan du bai, labaderotik bueltan nola txintxilikatzen zituzten maindire eta erropa guztiak su bajuaren inguruan ahal zen bezela, alanbreekin eta aulkia aulkiakin jarriaz gau guztirako edo egunetarako.



Itturburu.

Ilido horretatik "pintzakin bata besteari goitik behera helduta tela puzzle modukoak egiten genituen, denak sarzearren eta gero ikusi egin behar uzten zuen sukear usaina" dio Bittori Artzallusek. Usain hori gaur egun batzuentzat atsegina eta besteentzat oroimena izan daiteke agian. Bittori eta Maritxu ere makina bat "Lagarto" eta Txinbo"jaboi erabilitakoak dira. "labadora asmatu zuenak zerua irabazita dauka" esan dute dudarik gabe, nahiz eta hasieran askok erropa puskatzen zuela pentsatu. Etxean erropari jaboia eman eta beratzeaz gain astindu batzuk ere ematen zizkien erropari. Horretarako, mahaia bertikalean okerka jarri eta azpian baldea jarrita moldatzen ziren, mahaia geroz eta lisoagoa izan hobeto gainera. Errekaren hotzean hankak sartuta ere ibiliak dira hauek.

Inaxio Esnaolak eta Munttakoak ere, Enkarna Berakoe txea tarteko, bat egiten dute berarekin, etxerako ura bertatik hartzen zutela esaterakoan. Etxeko bestelako garbiketa, sukaldatze, animalientzako ura eramatea eta beste lanetarako iturri honetatik eta errekatik ere eramaten zituzten ur ontzi eta barrendoiak. Horiek bai joan etorriak eta zenbat kontu esan eta elkarbanatu ote zituzten labaderoaren inguruan, horretarako ere balio baitzuen seguru.



Berrobizarko itturria txukunduta.

Dolores ta Juana, Altxonekoak eta Galtzastegikoak ere ez ziren urruti eta ezin ahaztu izeba Elbirita eta Maria Joxepa Bengoetxea. Haren kontrolpean zituen nor eta noiz joaten zen garbilekura, fundamentua ziurtatuz kolorea kolorearekin eta txuria txuriarekin antolatuta zegoela. Izan ere Munttakoek, izeba, osaba, amona eta anaia arreba guztien artean 17 lagun zituzten bizikide eta erropa garbitzeko pentsa nolako karretilakadak maneatzen zituzten, Usarrekoen antzera (Arramorroko errekarra jeisten ziren hauek). Gero, Munttakoek etxe ondoko itturria ere erabili izan dute behar ezberdinetarako, orain 60 urte ura sartu zutela etxe ondoko errekatik. Harek suposatu zuen bizitzaren erraztea. Hala ere, etxe ondoko errekarra eskaileratetik gora eta behera makina bat joan etorri eginda koak dira bitxurretik barrena.

Itturburuko labaderora Gabittegiko Maria ere joaten zen majina bat aldiz. Karreteran hilko zela esaten omen zuen, karretila hartu eta labaderora joan etorrian ibiltzen zela. Goizean goizetik hainbeste izanda garbitzeko zain, hitzartu gabeko ilarak eta txandak egiteko ederki asmatzen zuten, lehendabizi iristen zenak erabiltzen zuen harria berez.

Dudarik gabe beste garai batzuk ziren haiek.

## ►ARRAUNA


Azken urteetan modua herriak ordezkariak izan ditu ACT eta ARC1eko ontzietan. Iñigo Jauregik Hondarribiarekin bigarren urtea izan du, Ion Jauregik eta Iñigo Areizagak aldiz Zarautzen lehiatu dute eta Mikel Areizaga ere arraunean hasi da Tolosako TAKen.

### IÑIGO JAUREGI (1989):



Bigarren urtea Hondarribiako taldearekin, eta a zer nolako urtea. 217 puntu, 13 bandera eta bigarren liga erreskan. Errez esaten da, baina traineru gainean aritu denak soilik daki zeinen zaila den bandera bat irabaztea.

Urtea baloratzerakoan oso positibotzat hartzen du, taldeak bere kirol helburuak bete dituelako. Baina horretarako Azaro haseran hasi ziren kiroldegian entrenatzen. Urteko lehen hilabetetan neguko ibai jetsierak lehiatu zituzten. Apirilean Gipuzkoako trainerillen txapelketa lehiatu zuten, ondoren Euskadiko eta sailkatu arren Espainiakoa lehiatzeari uko egin zioten, horrela maiatzean trainerilla denboraldia amaituz. Hortik aurrera traineru barruan San Miguel liga hasi zen, eta lehen esan bezela 13 bandera lortu zituzten 14 garaipen erdietsita (Zarautzen bi jardunaldiak irabazita). Urteko unerik onena aipatzerakoan Hondarribiak historian lehen aldiz Zarautzko bandera irabazi izana aipatzen du eta une gaziena aldiz kontxako bigarren estropadan, lehenengoan atera zuten abantaila mantendu ezin izana. 2016ari begira ligan lan txukun bat egiteko esperantza dute eta ea Kontxan paper hobe bat betetzea.



### ION JAUREGI (1995) ETA IÑIGO AREIZAGA (1996):

Zarautz A. E. rekin aritu dira aurtengoan ARC1 mailan. Urtea hasteko ibai jaitsierak lehiatu zituzten, ondoren bate-lan ligan aritu ziren denboraldi hasieran entrenamendu

modura. Gipuzkoako txapelketan sailkapen proban trabatuta gelditu ziren eta ez zuten finalerako sailkapena lortu. Kotsolazio txandan garaipena erdietsi zuten Euskadikorako sailkapen lortuz. Taldearen helburua, talde handiagoen arten lan txukun bat egitea zen eta kotsolazio txandan lorturiko bigarren postuarekin gustora geratu ziren. Hortik aurrera traineru liga izan zuten, lan erregular bat izanez eta liga amaieran 8. postu batean amaituta, goikoengandik urrun eta behekoek pasatzeko arriskurik gabe. Arlo pertsonalean Ionek urte gazi gozoa izan du, urte erdian lesionatu bait zen eta hortik aurrera ordezkogisara aritu zen gehiegi disfrutatu gabe, momentu onena Bilboko azken estropada eta txarrena lehen aipaturiko lunbarretako lesioa eta harrek eraginiko ondorioak. Iñigo oso gustura aritu da, jardunaldi guztietan parte hartu duelako. Une gozoena lehen aldiz kontxan lehiatu izana eta hango giroaz gozatzeko aukera izatea. Txarra aukeratzeko bateletan Euskadiko sailkapen proban trabatu izana.

Urte berriari begira ilusioz beterik daude, beraien entrenatzaile izan zena eta iaz Urdaibain arituriko Larra baitute entrenatzaile berri. AL den lanik txukunena betetzea izango dute helburu eta denboraldia hasi ahala ikusiko dute nora iristeko gai diren.

### MIKEL AREIZAGA (2002):



Tolosa TAK-ekin lehiatu du infantil mailan. Denboraldi txukuna bete dute eta arerio nagusi Orioz izan dute urte osoan zehar. Batel denboraldian urtarrila hasieratik apirila amaiera arte lehiatu dute, hasteko Gipuzkoako ligan bigarren postua lortu zuten Orion atzetik,

ondoren Gipuzkoako txapelketan ere bigarren postua lortu zuen taldeak eta arlo pertsonalean ziaboga onenaren saria eman zioten Mikeli. Gipuzkoakoan lorturiko lana dela eta Euskadikoa lehiatu zuten eta bertan ere bigarren postua lortu zuten Oriok segundo bateko abantaila atera bai zien. Denboraldia amaitzeko udaberriko liga garaipenarekin amaitu zuten. Denboraldiko une gozoena Loyolan erdietsitako garaipena eta txarrena Espainiakoa finalean jazotakoa. Datorren urteari begira infantilekin arituko da arraunean eta banderen lehian aritzea izango dute helburu.

## ► ATLETISMOA

Dakigun moduan herrian bada korrikalarik ere, herrieta-ko lasterketan, mendi lasterketan eta abarretan ibiltzen denik. Lasterketa guztiak aipatzea ezinekoa da baina jarraian lasterketa garrantzitsuenetan herritarren lorturiko emaitzak.

**2015-06-13: Tolosaldeko hiru tontorrak.** 42 km-ko mendi lasterketa, 2800mko desnibel positiboarekin. Tolosatik abiatu eta Ernio, Uzturre eta Erroizpe igo ondoren berriro ere Tolosan amaitzeko. 469 pertsonak eman zuten izena eta 401 atera ziren, aipatzekoa eguraldiak ez zuela batere lagundu.

Ibai Madina (27. postua): 5.03.20

Joxe Luis Zabala (229. postua): 6.38.16

### **2015-11-08: Behobia – Donosti.**

Zalantza gabe Gipuzkoako maratoi erdirik ezagunena. 28000 partaidetik gorak hartzen dute parte 20kmko lasterketa egiteko. Aipatzekoa aurtengo eguraldi sargoria, zenbait gunetan 29°C-ra iritsiz. Ez zen markak hobetzeko eguna izan.

Ibai Madina: 1:15:20

Jon Alberdi: 1:16:54

Gregorio Plazaola: 1:19:01

Felix Belaunzaran: 1:30:10

Iñigo Areizaga: 1:36:00

Arantxa Garin: 2:02:24



### **2015-11-28 BerroBIRA herri krosa.**

Aurten XIII. edizioa lehiatu da eguraldi nahasirekin, helduen mailan 47 partaide izan dira. Zazpi urtetik berakotan Eki Jauregik eta Nora Tejera izan ziren garaile, zortzi eta bederatzi urte artean Aitzol Etxeberria eta Maier Olano. Hamar eta hamaika urte artean Asier Arteaga eta Garaiz Jauregi eta amaitzeko hamabi-hamahiru urte bitartean Mikel Areizaga. Mutiletan garaile Txomin Maraño izan zen 23:29ko denborarekin. Nesketan aldiz Aratz Rodriguez 27:38ko denboraz. Herritarrei dagokienez lehen postuan Jon Altuna (26:12) eta Iosune Alberdi (35:06) sailkatu ziren.

### **2015-11-29 Donostiako maratokia**

Eguraldiak lagundu zuen eta Donostian 42 kmko lasterketa egitera animatu ziren bi herritarrak Ibai Madina 2:46:54 eta Felix Belaunzaran 3:14:24 izan ziren.

## ► PILOTA

Pilota da herrian hainbeste praktikatzen den beste kirol bat.

### **Amaiur Alberdi (1997)**

Aurrera K.E.n dabil aurtengoan ere. 2015eko udaberri txapelketa irabazi zuen 3. Mailan. Aurtengoan ahalik eta partidu gehien jokatzeko eta pilotan ikastea izango du helburu.

### **Xabi Zubiria (1996)**

Amezketako Zazpi-Iturri pilota eskolan dabil, Getxon final-erdietara iritsi zen eta Zaramagako txapelketan txapeldun izan zen. Aldizkaria ixterakoan Gipuzkoako lehenengo mailako txapelketa eta Zaldibarko 4 ½-koa jokatzen ari da.

### **Aitor Eruskin (1997)**

Amezketako Zazpi Iturri eskolan entrenatzen du. Urte nahiko oparoa izan duela esan daiteke. Antiguoko txapelketan final laurdenak jokatu zituen, Zestoako Dinastia Etxaben finalerdietara iritsi zen, Euskadiko eta Gipuzkoako bigarren mailakoan azpitxapeldun gelditu zen eta Miguel Soroa memoriala irabazi zuen.

### **Iñigo Altuna**

Pilotan oso gustura dabil oraindik, erakusgarri maiatza eta urri bitartean 50 partida jokatu izana, batik bat Burgos aldean, aipatzekoa abuztuaren soilik 17. Lesiotik ondo errekuperatuta dago eta bere hitzetan azken pilotakadak eman arren ziur zeresana emango duela oraindik.

## ► MENDIA



Mont Blanc (edo euskaraz Mendi Zuria) da Europar Batasuneko mendirik altuena 4810.06 m-ko garaierarekin. Izen bereko mendikatean kokaturik dago Frantziako Saboya Garaia eta Italiako Aosta aranen artean. Bi Estatuek beren planoetan gailurra berea dela esan arren, 1860ko tratatu internazional batean hala erabakita elkarbanatu egiten dute. Glaziarrez inguraturik dago eta gaur egungo bizimodua tarteko, 1965az geroztik 11,6 kmko tunel batek zeharkatzen du, horrela Frantzia eta Italia lotuz.

Askorentzat alpinismoaren bertan sortu zen, XVIII. mendean inguruan, eta gaur egun Snowboard, eskia edo mendi ibilaldiak tarteko oso leku bisitatua da. Horrela bada, alpinismoaren hasieratik urte batzuetara Joxe Luis Zabala bertara joan zen joan den abuztuan. Egindako bidaiaren galdera batzuk erantzun zizkigun:

### **Nolatan sortu zitzaizun Mont Blanc igotzeko asmoa edo ideia?**

Edozein mendizalari Mont Blanc igotzeak motibazio berezi bat sortzen dio, Alpetako mendi gailurrena baita. Mendia baztertuta neukan aspaldian eta berriro bueltatzeko gogoia nuen, aitzakia polita zen Europar Batasuneko gailur altuena igotzea eta lankide batek ere gustura egingo zuela esan ondoren biok joatea erabaki genuen.

### **Nolako prestakuntza eskatzen du horrelako bidaiak batek?**

Azken finean travesia luze batek sasoi puntu ona eskatzen du alde batetik eta bestalde, eta batez ere, altuerari

egokitu beharra dago, 4810 metroko garaiera baitu tontorrek. Teknikoki zaila izan ez arren, inguruko glaziarrek eta elurra tarteko, pioletak, kranpoiak, izotzetako torloju eta sokarekin lotuta ibili beharrak gutxieneko jakintza batzuk eskatzen ditu. Horregatik neguan eta udaberrian "korredore" deituriko batzuk egin genituen eta baita mendi zeharkaldiak ere, ahal zela elurretan

### **Igoeraren nondik norakoak kontatu.**

Igoerako lehen saiakera Italiatik egin genuen, La Via del Papa deritzonetik. Ibilaldi hau garaiera oso baxutik hasten da, 1700 metrotik ingurutik. Behi abiatu ondoren dena nahiko ondo joan zen 3000 metro inguruan glaziarrean sartu ginen arte, baina aurtengoan eguraldi ona eta beroa tarteko glaziarra oso egoera txarrean zegoen, dena zartatuta zegoen eta bilatu arren ez genuen biderik aurkitzen. Azkenean 3500 metro inguruan buelta eman behar izan genuen, autokarabana itzuli eta bertatik Frantziako Aran Zurira, bertan 3500 metrotan, glaziarren gainean kanpina jarri genuen eta goizeko ordubatean abiatu ginen bertatik gailurra zapaltzeko asmoz. Laumilakoen bidetik abiatu ginen, bi laumilakoen lepotik igaroz (Mont Blanc de Tacul eta Mont Maudit) eta bertatik Mont Blancetako tontorreko igoera hasi genuen.

Azken 200 metroak arte ondo joan nintzen, gustura, baina hortik gora ondoezik sentitzen hasi nintzen. Logura, Buruko mina eta botagura izan nuen, "mal de altura" delakoa alegia. Nola ahala gailurrera igo ginen eta itzulera bidea hartutakoan, altitudea galdu ahala buelta eman nion gorputzari. Kanpinera iritsi ginenean 13 ordu egin genituen lo eta hurrengo egunean autokarabanara itzuli ginen etxera itzultzeko asmoz.

### **Zer moduzko esperientzia izan da? Zer nolako balorazioa egiten duzu?**

Tontorrera igo ezker oso gustura gelditzen da eta etxera onik itzultzean, ibilbidean pasatako hotz, buruko min eta kalamitate guztiak ahazten dira. Esperientzia polita izan da.

### **Aurrera begira ba al duzu mendi garaiagoren bat igotzeko asmorik?**

Orain neguan iazko antzeko entrenamenduak egingo ditut, hau da, korredorek eta izotzetako eskalada. Udara bertaratu ahala ikusiko da ze asmo daukagun oporretan eta ea beste ibilbide bat egingo dugun ala ez.

## ► JUDOĀ



1882an Japonian sorturiko kirola da, eta gaur egun, 2015 ean Berrobiko San Andres eskolan praktikatzen dute zenbait ikaslek. Aiora Aburuzaren esanetara aritzen dira herriko sei eta hamabi urte bitarteko 14 neska-mutil. Judoa lantzerakoan beren gorputzen ezagupena eta bes-teekiko errespetua lantzen dituzte, helburutzat, elkarri minik ez ematea, minik ez hartzea eta ondo pasatzea izanik. Oraingoan astean behin elkartzen dira, astearte arratsetan, eta beroketa ariketa batzuen ondoren judoko giltza-teknika ezberdinak ikasten dituzte. Aipatzekoa da entrenamendu hasera eta bukaeran, elkar agurtzerakoan duten errespetua.

Federatuta ez daudenez ezin dute txapelketetan parte hartu, baina aste santu inguruan topaketaren bat egiteko asmoa erakutsi du Aiorak. Bejondeiela gaztetxoei eta jarrai dezatela judoa bezalako errespetuzko kirola praktikatzeko.

## ► TXIRRINDULARITZA

Azken aldian herrian kirol bat praktikatzen bada txirrindularitza da. Uda ala negu beti da txirrinduarekin dabilenik, bai mendian eta baita errepidean ere. Erakusgarri orain 3 urte egin zuten herriko ekipazioa ere. Errepidean egin dituzten lasterketa aipagarrienetako batzuk Abraham Olano itzulia, Indurain memoriala, Billabonako itzulia dira. Bestalde urteroko ohiturari jarraituz, herriko jaietan Azpirozko itzulia egin zuten aurtengoan ere festei hasera emanez. Berrobitik atera eta Lizartzatik barrena Azpiroz igo, Lekunberrira jaitsi eta Uitzitik barrena Berrobira bueltatu. Dutxa baten ondoren herri afarian Itzuliko gorabeherak eta elkarrekin izandako lehen inguruan nahiko txantxa eta adarjotze izan zuten.

## ► GIZA PROBA



Laugarren urtez jarraian hartu du parte Berrobiko Giza Proba Taldeak Gipuzkoako txapelketan. Urte hasieratik arazo batzuk izan dituzte taldea osatzeko eta aurpegi berri dezenteko aukera izan da. Gipuzkoako txapelketan lau taldek hartu dute parte eta herritarrekin batera Mendaroko Tope Natxiok, Andutz Itziar eta Debako Tarinak aritu dira 2015eko ligaxkan. Horrela, lau saio ezberdinen ondoren puntu gehien zituen taldea txapelketako garaile izanez. Saio bakoitzeko lehen sailkatuak lau puntu lortzen zituen, bigarrenak hiru, hirugarrenak bi eta laugarrenak bat. Berrobiko taldea garaipenarekin hasi bazen ere, urte irregularra tarteko eta beste plazetako emaitzak kontuan hartuta (Mendaro lau puntu, Errezilen bi puntu, Deban hiru puntu eta Elgoibaren puntu bat) txapelketa hirugarren postuan amaitu zuen. Denboraldi amaieran txapeldun Itziar Andutz izan zen 13 punturekin, Mendaro eta Berrobi 10na punturekin eta Debako Tarinak sei puntu. Urtea amaitzeko azken urteetako ohitura jarraituz San Agustintan saioa egin zuten elizari bueltara Itziartarren aurka eta garaipena erdietsi zuten.



## ► FRONTENIS



Frontoiko eraberritze lanak tarteko txapelketa atzeratu zen 2014. Urtean. Partaideen kopuruari erreparatuta mutilen banakako txapelketan 22 partaide, mutilen binakako txapelketan 32 bikote, nesken binakako txapelketan 3 bikote eta txapelketa mistoan 8 bikote aritu ziren frontoian. Finaletako emaitzak hauek izan ziren:

- Xabi Romero - Edu Lobato 30 VS 24 Odei Arregi-Yerai
- Arantzazu Rodas - Odei Arregi 30 VS 24 Oxkar Urrutia - Nekane Bendoiro
- Arantzazu Rodas - Mireia Lezea 30 VS 17 Oihane Vergara - Leire Jauregi
- Odei Arregi 28 - 30 Ibai Ropon.

2015ean Azaroaren 14an hasi eta abenduaren 5ean bukatu zen txapelketa. Partaidetzari dagokionez 37 bikotek hartu zuten parte mutilen binakako txapelketan, 17 partaidek mutilen banakakoan, 3 bikote nesken binakakoan eta 6 bikote mixto. Antolakuntzak eskerrak ema nahi dizkie ikustera etorri direnei eta parte hartu dutenei eta datozen urteetarako partehartzea bultzatu nahi dute, batik bat nesken txapelketan.

Finalak abenduaren 5ean izan dira. Abenduko zubiko lehen egunean. Partidak binakako finalarekin hasi ziren arratxaldeko 15:30tan. Xabi Berasategi eta Jose Angel Claveriak garaipena lotu zuten Xabi Zubiria eta Jon Jauregi herritarren aurka. Ondoren nesken finalean Elena Artieda eta Leire Jauregi Arantzazu Rodas eta Mireia Lezea garaitu zituzten. Arratxalde erdian lau herritarrek jokatu zuten mixtoko finala eta Nagore Lizardi eta Niko Artolarentzat izan zen garaipena aurrean zituzten Xabi Zubiria eta Leire Jauregi irabazi ostean. Bukatzeko Odei Arregi eta Niko Artolak banakako finala jokatu zuten, biek ere jokatu izan dute txapelketako finala aurreko edizioetan eta badakite txapeldun izatea zer den. Niko irabazten hasi bazen ere, Odeik buelta eman zion txapela erdietsiz. Eguna amaitzeko modalitate ezberdinetako lehen hiru sailkatuek eta antolatzaileek Usurbilen afaldu zuten Orioko jaietan garaipena ospatu edota penak itotzera. Bejondeiela denei!

Amaitzeko aipatzekoa datorren urtean XXV. Edizioa ospatuko dela.

## ► FUTBOLA

**Maddi Dorronsoro (1995).** Areto futboleant dabil aurtengoan. Gipuzkoako txapelketa jokatzeko ari da Anoeta K.E. taldearekin atezain gisara eta taldeak denboraldi amaieran sailkapen txukun bat lortzea dute helburu.

**Imanol Arratibel (1997)** Leitzako Aurrera K.E.n jokatzeko ari da hirugarren urtez. Iaz jubenetan jokatzeko zuten, baina aurten jende falta dela eta ez da jubenetalderik atera eta preferente mailan jokatzeko ari da. Mailaz gain bere postua ere euskarri izatetik zentral izatera aldatu du. Taldearen helburua maila mantentzea da eta lehenengo hamar jardunalditan liga lehiakorra izaten ari da.

**Beñat Goenaga (1999).** Jubenetal mailako lehenengo urtea du, Amaroako Danena taldean. Taldearen helburua ohorezko mailara igotzeko lehiak aritzea da eta ahal bada mailaz igotzea. Bestalde aipatu beharra dago 2013 eta 2014an ere futboleant aritu zela eta aldizkarian bere berri ahaztu zitzaigula, tarte hau aprobetxatu nahi genuke barkamena eskatzeko.



## JOSEBA IZAGIRRE

Joseba Izagirre trikitilariak udara gozoa izan du. Uztailaren 12an Oialumen, Zizurkilen Abuztuaren 15ean eta Berrobin Abuztuaren 30ean Trikitilari Txapelketak irabazi zituen. Hiru txapelketa hauetan Aizarnazabalgo Jugatz Oleaga pandero jotzailearekin aritu da. Josebaren arabera, "urte guztian egindako lanaren saria da".

## KORRIKA



Bestalde 4 urtetik behin Euskal Herria aldez alde zeharkatzen duen Korrika Berrobitik pasa zen aspaldiko parkez, eta larunbat batez goizeko 6:00rak inguruan pasa arren herritar asko hartu zuen parte, kirola eta euskara uztartuz. Arrazoi ona izan zen korrika egin ostean Solastokin eginiko gosaria ere.

## ZORTE ON!

### MARIBI ETA TINA

#### HERRIKO KOMERTZIOEN AURPEGI BERRIAK

Aurten jabe aldaketa bikoitza izan dugu herriko komertzioetan. Batetik, Maribi egin da okindegiaren ardurdun eta bestetik, Tina hartu du Solastokiko gidaritzatza. Zorte on bioi!



## FESTAK

Abuztuan 27tik 30 arte iraun dute aurtengoan San Agustin festek. Ekintzez betetako lau egun izan dira: umeez, koadrilek, San Agustin Santuak... denek izan zuten lekua. Ondo hasteko txupinazoa eta hobeto bukatzeko zahagi ardoa herriko trikitilariak alaiturik. Tartean denetik izan zen. Haurrentzako hainbat ekintza izan zen: buruandiak, umeen jolasak, puzgarriak, hamaiketakoak...

Helduagoentzat ere izan zen entretenimendua: bertso bazkaria, meriendak, sagardo dastaketa, pitxo poteak, herri afaria, paella...

Adin guztietakoen gozamenerako kirola ere ez zen falta: herriko gaztetxoek pilota partidak, aizkolariak, Berrobi Andutz-Itzarren arteko giza proba...

Bestelakoak ere ez ziren falta: Alurr dantza taldearen emanaldia, bertso musikatua, trikitixa txapelketa, Laketa taldea, Fan & Go...

Gainera lehen aldiz larunbat arratsaldean adin guztietakoen parte hartzeko moduko jolasak ere izan ziren. Bertsoari aurkeztu zituzten eta ez zen argi gelditu nork pasa zuen hobeto: jolasean zebiltzenek ala ikusleek. Argazkian ikusten den moduan, festak beharrezko Berrobiko fashion-week zirudien.

Aipatu beharra dago nahi zuenarentzat meza sorta ere bazegoela egitarauan.

Hain festa onak izan ziren eguraldia ere bukatu ondoren tristatu zela.

Halere, aurtengoa ez zen hortxe amaitu, San Andresetan ere izan baitzen zer ospatua. Larunbatean haur zein helduentzako BerroBIRA krossa izan zen eta gauean afaria. Igandean, berriz, meza, jubilatuen bazkaria eta talo janka.



## ESKOLA

### IKASTURTEKO PROIEKTUA: BIZI

Bizitza, bizidunak landu dituzte eskolan. Bizitza zer den, nola sortzen den, bizirik egoteko zer egin behar den, bizitza non dagoen aztertu dute azken ikasturtean.

#### 1. Hiruhilekoan: Itsasoa

Itsasoan murgildu ziren: Bizitza bertan sortu zela eta gaia lantzeko 2 egunetako irteera Pasaiara egin zuten, kostaldean ibili, Albaolara eta Aquariumera bisita barne.

Manolo Rodas Ternuan ibilitako arrantzale ohia ere azalpenak ematera etorri zitzaizen eskolara.

Gupisak, arrain txikitxo batzuk eduki zituzten eskolan. Arraintxoak jaio ziren, gupis amak arraintxoak sabelean zituela ere haur guztiak ikusi zuten.

Denek asko ikasi ondoren eskolako goiko pasilloan maila ezberdineko haurrek taldeak eginda itsasoa irudikatu zuten. Herriari zabaldutako ekintza ere egin zuten: "Itsaspeko sekretuak" bisita gidatua. Hau ikasitako guztiaren aurkezpena izan zen.

#### 2. Hiruhilekoan: Osasuna eta elikagaiak.

Eskolan sukaldea montatu zuten.

Irteerak: Mahalara, Eroskira, Ordiziako azoka eta Delikatuzera, Orendaingo errotara (irina egiten ikustera), Garia okindegira ( bertan ama orearekin egiten dute ogia)...

Handien gelan lanketa bat egin zuten: oinarrizko osagaiak hartu eta eraldaketak egin zituzten. Sukaldea Laborategi bihurtu zuten.

Arantza Lorenzo dietistaren bisita ere izan zuten.

Eta bukatzeko pintxo festa egin zuten. Janari guztiak beraien prestatu zituzten. Oturuntza deitu zioten. Ekintza hau tailer modura antolatu zuten: adin ezberdineko taldeak osatuta aritu ziren elkarrekin lanean. Egun horretan Alkiza eta Adunakoak etorri ziren. Alkizakoak krocketak eta Adunakoak bizkotxoak eta trufak ekarri zituzten. Denen artean bazkari ederra prestatu zuten.

#### 3. Hiruhilekoan: Udaberria

Mezua: Bizitza ospatu behar da.

Landareak eta mozorroak izan zituzten aztergai.

Eskola zoo bihurtu zuten: Makila insektuak, untxia, txingurriak, muxkerra, dordoka, txitxareak...

Inkubagailuan jarritako arrautzetatik txitoak ere jaio ziren.

Lur zatiak hartu eta ze biodibersitate dagoen aztertu zuten. Txorientzako jantokiak egin eta herri osoan jarri zituzten.

Maskota eguna ere egin zuten: eskola lehenez gainera animaliez bete zen: katuak, txakurrak, txoriak, dortokak, hamsterrak, barraskiloak...

Asier Armendarizek erleen bizimoduaz hitz egin zien. Eta azken lau modura, ikasitako eta landutako guztia bilduz "Xomorro" aldizkaria argitaratu zuten.



### BESTELAKOAK:

**INAUTERIAK:** Itsasoa gaitzat hartuta surfero, urpekariaz, sardiñeraz eta pirataz mozerrotu ziren.

**BARATZA:** Azken urteetan bezala lan eta lan egiten dute 3. Eta 4. Mailakoek.

**KULTURALDIA:** Urtero moduan emanaldi ederra eskaini zuten bertso, antzerki, dantza, musika eta abarrekin osatutakoak.

**IRAKASLE GELA:** Irakasleen gela beheko solairutik goiko solairura aldatu dute. Beheko gela 2 urteko haurrentzat egokitu bait dute. Goiko gela bat egokitu dute eta horretan ikasleek lagundu zuten plano ezberdinak eginenez matematika landuz.



**KORRIKA:** herrian Korrika pasa zen moduan, eskolan Korrika txikia izan zuten. Eskolatik abiatu eta herrian barrena aritu ziren korrika eskolako haur eta zenbait guraso.

**AGENDA 21:** Ikasturte honetan mugikortasunaren inguruan aritu ziren.

Lanketa honen barruan abiadura ikerketak egin zituzten, zenbat pasabide dauden herrian kontatu, zailtasunak eta oztopoak identifikatu. Datu horiek denak jaso eta ondoren Udaletxean azaldu zituzten.

**BIKOIZKETA LANA:** Bertsolaritza eta euskara landuz "Saltando" marrazki bizidun pelikula, euskaratu eta bertso moduan jarri zuten bikoiztu aurretik.

### HAUEK BAI ARTISTAK!!

Hau dena eta gehiago eskolako blogean ikusteko aukera daukazue!!

Aurten Anjel Lertxundi idazlea eta bere lanak dute gai zentrala, hor-taz datorren urtean arituko gara.





### III. ARGAZKI RALLYA

**Kulturaldiaren barruan aurten**

**III. Argazki Rallya egin zen.**

**Sariak IV. Udaberriko azokan banatu ziren.**



Gaia "koloreak". Astebeteko epea zeukaten argazkiak aurkezteko eta ondoren denak Etxolan erakutsi zituzten. 14 heldu eta 17 gazte izan ziren parte hartzaileak.

Epaimahaiaren erabakiz helduen saria : **Elena Markezek** jaso zuen "Zerua koloretsua" lanarekin. Gaztetxoaren kategorian:

**Maialen Ayerza** "Lorettoa" lanarekin irabazi zuen lehen saria.

## KULTURALDIA, 25.URTURRENA



Fatima, Chadia eta Boubkar Marrokoko elikagaiak aurkezten.

Beti esan ohi da "Edozein lan burutzean eta aurrera bideratzean hasierak dira zailenak." Jarraipena, dudarik gabe, ez da errazagoa. Eta 25 urte jarraian, hasitakoa hobetzeak, herritarren nahia eta gogoak pizteak, hilabete oso batera zabaltzeak eta eginkizuna ondo betetzeak nekeak arintzen ditu eta fruituak emankorrak bihurtu.

Horixe bera gertatu da Berrobiko urteroko Kultur Astearekin. Orain 25 urte "Ekintza "Guraso Elkartek", "Begi GoriK" eta Udalak Aste berezi horri eman zioten hasiera. 1991ko urtea zen. Orduko Programa, gogoratzekoa da :

- Heziketa Sistemaren Erreforma.

- Dario Fo, italiar idazle eta Nobel Saridunaren "Emakume Bakartia" antzeslana.
- "Emakumearen Autoestima" hitzaldia.
- Elikadura.
- Kontzertua Elizan.
- Kili, Kolo eta Moko pailasoak.
- Eskolako ikasleen emanaldia.

Mende laurdena igarota, aurreko urteetako esperientziak "Hilabete osoko Kultur Jarduna" sortaraztea bultzatu du. "Kultur Puxika" puztu egin da Berrobin. Aurtengo maiatzaren 16 egunetan makina bat saio kultural bitxi, berri, desberdin eta ederretan parte hartzeko aukera bikaina izan dugu. Honatx:

Ruper Ordorika oñatiarraren kontzertua. Azoka. Argazki Rallya. Ester Poveda herritarren bi bakarrizketa. Dantzarien emanaldia. Ipuin kontalaria. "17 urtez belauntzian munduan zehar bidaiatzen" hitzaldia eta argazkiak. Bertso bazkaria. Jakoba Errekondoren "Bizi Baratza" liburua-aren aurkezpena. Matilde Urdangarinen margoen erakusketa. Eskolako ikasleen emanaldi zoragarria. Iñaki Ochoa mendizalearen erreskatea Himalayan. Judoaren mundua. Gaztetxoaren pilota partidak. Sukaldaritza.

Azken egunean, burua haizeatzeko, gorputzeko artikulazioak oliatzeko eta lagunartekotasuna sendotzeko Uzturrera mendi irteera. Dena positiboa. Hutsune bat besterik ez: Uzturre bertan eta beherakoan ez zuten euskal abestirik kantatu. Datorren urteko "Kultur Hilabete"ko programan ekintza hori azpimarratuko da.

# LITERATUR LEHIAKETA

Badok hamahiru esan beharko dugu. Aurten XIII. aldiz Berrobin bizi edo ikasten duten hurrek eta gazteak aukera izan dute idatzi eta lanak aurkezteko.

Sari ematea Maiatza Kulturean Etxolan egin zen.

Epaimahaikoek 36 lanak irakurri eta aztertu ondoren hauek erabaki zuten:

## 1. KATEGORIAN:

### Irabazlea:

"Umea eta arbola" lanarekin: Ander Agirretxe.

### Aipamena:

"Baso beldurgarria" lanarekin: Jon Ulanga.

## 2. KATEGORIAN:

### Irabazlea:

Kartzelara bidaia" lanarekin: Maren Egues

### Aipamenak:

"Eguzki sistema zeharkatzen" lanarekin: Ibai Torkemada.

"Adiskidetasunaren indarra" lanarekin: Ane Agirretxe.

"Txerri piratak" lanarekin: Andoni Tejera.



Seجي lanean eta ea hurrengoan poetak esnatzen diren!

DATORREN URTERARTE!!!



## Ikasleak idazle



Badira dagoeneko urte dexente, maiatzeko Kultur Aste barruan Literatura Lehiaketa ( prosan edo hitzlauan) bultzatu eta burutu dela. Urtetan, 6 eta 14 urte bitarteko Berrobiko idazleak ( gehienak Eskolakoak) udaberri hasieran saiatu izan dira fantasiako ipuin eta kontakizuntxoak asmatzen eta ordenagailuz txukun-txukun aurkezten. Aurten ere horixe egin dute.

"Berrobiberrin" iaz hasi ginen lehenengo aldiz irabazleen idatzi literarioak argitaratzen. Idazleak, euren adina kontuan hartuz, bi mailatan sailkatzen dira, eta bi maila horietako bi garaileen lanak zuen aurrean jartzea erabaki zen orduan.

Literaturako Nobel Saridunak eta idazle profesionalak ere hauek bezala hasiko ziren idazte lanetan. Denak berdintsu. Jarraipenean eta horretarako izatean dago aldea. Baina egia dio esae-rak: "Eginaz errazten da bidea eta helburua".

Hemen dituzue Ander Agirretxeren eta Maren Eguesen idatziak. Bakoitza, bere mailan, irabazleak izan dira.

## Umea eta arbola



Bazen behin arbol bat eta fruta asko-asko zituen.

Oso goxoak ziren.

Ume guztiak eskolara joan baino lehenago frutak hartzen zituzten denentzat.

Egun batean ume batek esan zion arbolari:

-Nahi al duzu nire laguna izan? Eta arbolak baietz esan zuen.

Oso lagun onak izan ziren eta abentura asko izan zituzten.

Arbola afaria prestatzen zegoen bitartean umeak baratza prestatzen zuen.

Horrela bizi izan ziren elkarri lagunduz.

**Ander Agirretxe**

## Kartzelara bidaia

Kaixo, Maren naiz eta nire izeba kartzelan dago, 14 urte darama bere ingurua ikusi gabe, kartzelatik atera gabe. Orain Algeciraseko espetxean dago eta beste toki askotan ere egon da: Huelva, Madrid, Granada, Ávila... Ni, urtean 7 edo 8 aldiz joaten naiz bisitan eta ordu ta erdi egoten gara aurrez aurrekoan, eta gero 40 minutu egoten gara kristaletik. Bidaia 14 ordukoa da eta gehienetan autobusez joaten naiz aita edo amarekin. Hemen kontatuko dut nire bidaia:

Lehenengo nire herritik Gasteizera joaten naiz kotxez. Hor gasolindegi eta taberna bat daude. Tabernan itxaroten dugu 19:00ak arte orduan agertzen baita autobusa.

Gasteizen motxilekin kanpoan egoten gara eta ezagun asko topatzen dugu.

Nik lagunak egiten ditut batzuetan: Irati, Izaro, Xare...

Oso lagun onak eta dibertigarriak, nahiz eta orain batzuekin ez topo egin.

Bueno autobusa iritsitakoan zakuak jaso egiten ditugu eta afaria autobusera igotzen dugu. Autobusera sartzean pelikula bat jartzen dute. 19:00etan Palentziara goaz Leo tabernara. 21:30etan iristen gara, hor afaldu egiten dugu literak egin bitartean, 22:45 arte. Literak egindakoan zakuak jartzen ditugu gure tokian eta lo egiten dugu ahal dugun moduan. 6:30ak aldera iristen gara Jerezera han azkar jantzi eta autobusetik jeisten gara. Jeitsi ondoren autobus geltokian gosaltzen dugu eta ordu beteko beste autobus bat hartzen dugu Algecirasera. Ordu horretan lasai egoten gara deskantsatzen eta Los Barriosenjeisten garan taxia hartu eta kartzelaren atarira iristeko. Kartzela barruan sartu eta gure txartelak ematen ditugu.

Motxilak takilan sartzten ditugu eta gu metalezko arkutik pasatzen gara.

Arkuak pasa ta gero gela batera iristen gara, hor itxaron behar dugu jende guztia pasa arte. Denak pasa ta gero atea irekitzen da, eta atzetik beste bat. Atetik pasa ondoren zubi txiki batera iristen gara eta beste aldeko atera joaten gara. Atea zeharkatutakoan beste gela batera goaz eta beste ate hori zeharkatu ondoren patiora iristen gara. Patioan tunel bat dago eta hortik joaten gara beste ate batera. Beste ate hori zeharkatutakoan beste patio txikiago batera iristen gara, horko atea zeharkatuta beste ate

bat pasatzen dugu. Hor eskailera batzuk daude bigarren pisura arte eta bigarren pisuan beste ate bat pasatzen dugu. Pasilu luze bat dago eta hor aurrez aurrekoen gelak daude. Denak gure geletan sartzten gara eta izebari musu handi bat ematen diogu. Eta eserita poz-pez hitz egiten hasten gara.

Izebak goxokiak eta jateko zerbait ekartzen dizkigu.

Hasieran hitz egiten dugu ea zer moduz gabiltzen hemendik.

Eta gero puzzleak egiten, marrazkiak pintatzen eta jolasean ibiltzen gara sobratzen zaigun denboran. Denbora bukatutakoan izeba besteekin eramaten dute kristaleko bisiten gelara. 10 minutu itxaroten dugu eta atera egiten gara berriz. Berrito patiora joaten gara eta patiotik kanpora. Berrito tunelera goaz eta beste atetik pasatzen gara, hor minigela txiki pilo bat daude eta guri beste puntan tokatzen zaigu beti. Kristalez egoten gara telefono baten bidez, txistek kontatzen ibiltzen gara eta Ikusi-makusin ere bai. 40 minutu pasa ondoren kartzelako atarira ateratzen gara eta taxiz, autobus geltokiaren ondoan dagoen tabernara joaten gara bazkaltzera.

15:00 aldera hasten gara bazkaltzen eta 17:30etan Jerezera autobusa hartzen dugu. Jerezera paseatzen ibiltzen gara 19:00 harte eta 19:00etan Gasteizerako autobusa hartu eta Puertoko kartzelara joaten gara besteak hartzera. Puertotik Santa Olaia de Calara joaten gara afaltzera, literak egin bitartean. Lotan jartzen gara eta goizeko 06:30etan Gasteizen jeisten gara.

Behin amarekin nijoala ez ginen esnatu Gasteizen! Bilbon!! Autobusean zihoan lagun batek esan zigun berak eramango zigula Gasteizera. Bere furgonetan sartzean ez zuen arrankatzen!! Hau bai desastrea! Gruari deitu genion eta azkenean arrankatu zuen Gasteizera joan ginen, 11:30tan. Hoixe gertatu zitzaigun. Kotxea hartu eta zuzenean Berrobira etortzen gara. Hurrengo egunean pixka bat nekatuta egoten gara baina ondo deskantsatuta ederki segitzen dugu.

Bidaia gogorra da baina merezi du gure izeba ikusteko.

AUPA IZEBAA!!



BERROBIKO UDALA  
*Euskara eta Kulturarekin*